

Rafael Ajangiz
Iñaki Bárcena

Euskal Herriko Gizarte Mugimenduak

Deustuko
Unibertsitatea

• • • • • • • •

**Giza Eskubideen
Institutua**

Giza Eskubideak

Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak

Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak

14. zenb.

Euskal Herriko
Gizarte Mugimenduak

**Rafael Ajangiz
Iñaki Bárcena**

Bilbao
Deustuko Unibertsitatea
2001

Erredakzio Kontseilua:

Jaime Oraá

Xabier Etxeberria

Felipe Gómez

Eduardo Ruiz Vieytez

Argitalpen hau, zatiz edo osorik, azalaren diseinua barru dagoela, ezin kopia daiteke, ez eta bildu edo igorri inola ere, dela elektrikaz, dela kimikaz, dela mekanikaz, dela optikaz, dela grabazioz, dela fotokopiaz, baldin eta lehendaurrez argitaratzailearen baimenik ez badu.

Argitalpen hau paper ekologikoan inprimaturik dago.

© Deustuko Unibertsitatea
Posta Kutxa 1 - 48080 Bilbo

ISBN: 978-84-9830-564-7

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| Sarrera | 9 |
| Gizarte mugimenduen azterketa | 11 |
| Euskal Herriaren gizarte errealitatea | 17 |
| Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua | 21 |
| Emakumeen mugimendua | 25 |
| Mugimendu antinuklearra eta ekologista | 29 |
| Bakearen aldeko mugimendua eta mugimendu antimilitarista | 36 |
| Solidaritate mugimendua | 44 |
| Azken gogoeta: gizarte mugimendu berriek Euskal Herrian bultzatu dituzten aldaketan inguruan | 47 |

Sarrera

Zein dira gizarte mugimenduak? Edota hobeto esanda, zer dira gizarte mugimenduak? Behar-beharrezkoa da Euskal Herriko gizarte mugimenduei buruz idazten hasi aurretik galdera horri erantzutea, aztergaiaren definizioak baldintzatuko baitu gure azterketaren azken emaitza. Gizarte mugimendu garaikideez arituko gara, hau da, azken hogeita hamar edo berrogei urteotan gure industriondoko gizarteetan gertatu den gizarte mobilizazio multzo horretaz. Baina, zer dela eta hautaketa hori? Ez ote gara hemen aipagai ditugunak adina garrantzitsuak edota garrantzitsuagoak diren beste batzuk baztertzeko arituko?

Industriondoko gizarteak xx. mendearren bigarren erdialdean bizi izan dituen modernizazio prozesuek egiturazko tirabira garrantzitsuak ekarri dituzte berekin, eta tirabira horiek agerian utzi dituzte gizarte sistemaren mugak eta gizadiak bizirik irauteko dituen baldintzak. Biosferari egindako kalteak, gerrek eta gatazka armatuek, era guztietako desberdintasun sozialek gure munduan nagusitu den gehiegizko merkantilizazioan dituzte sustraiak. Pertsonak eta giza taldeek, beren bizitzeko modua, beren nortasuna eta beren etorkizunerako egitasmoak arriskuan jartzen dituzten abiadura biziko aldaketei aurre egin behar diete. Mobilizatzeko arrazoi asko dago. Zorionez, zaharberitze horrek berak gizon-emakumeen mobilizatzeko ahalbideak eta ahalmenak hobetu ditu, gazteenak batez ere. Horregatik sortu dira gizarte mugimendu berriak, eta beraiekin batera, dugun errealitateaz beste errealitate batzuk planteatzen dituzten ideia eta ekintza politikoak, sozialak eta kulturalak.

Definizio asko proposatu dira gizarte mugimenduak eta bestelako erakunde eta aktore politikoak argi eta garbi bereizi nahirik. Definizio

orokor eta estentsibo baten arabera, esate baterako, nahikoa litzateke gatazka sozial edo politiko batean jarduera zehatz bat izatea, askotari-ko aktoreek modu informalean sarean elkar eragitea eta nortasun kolektibo amankomun bat izatea (Diani, 1992). Zehatzagoa litzateke beste bat, gizarte mugimendu bat gizartearen oinarritzko aldaketa bat eragin, eragotzi edota ezabatu nahi duen eragile kolektibo mobilizaz-zaile gisa definitzen duena, horretarako halako jarraikortasunez jokatuz, integrazio sinboliko handia eta rolen zehaztasun maila txikia izan-ik, eta ekintza eta organizazio-modu aldakorrek erabiliz (Raschke, 1994). Eta azkenik, zehaztasun gehiago emanez, esan genezake, agin-tari politikoekiko, eliteekiko eta aurkariekiko elkarrekintza jarraitu eta gehienetan gatazkatsu batean —eta nortasun kolektibo bat amanko-munean izanik— publikoki, boterearen erabilera edo banaketa interes kolektiboan alde eraldatzea eskatzen duten banakoen, taldeen edota organizazioen arteko elkarreragite informalean sare bat dela (Ibarra eta Letamendia, 2000).

Norbaitek pentsa lezake definizio hauek abstraktu samarrak direla, baina gehiago zehaztea murrizgarriagoa litzateke, eta gauza asko gel-dituko lirateke kanpoan. Gizarte mugimendu hauei buruzko lehen az-terketak eta analisiak askoz kategorikoagoak ziren eta gizarte mugimendu hauen berritasuna nabarmentzen zuten mugimendu *zaharren* aldean, langile mugimenduari dagokionez batik bat: organizatzeko eta jarduteko modu berriak, ideia-multzo berriak... Hala ere, denboraren eta gizarte mugimendu hauek errealitate beti berdinak ez direla egiaz-tatzearen poderioz, hasierako ondorio haiek zehaztuz joan dira. Anto-latzeke moduak erabat horizontalak eta demokratikoak izan daitezke, baina beste ohiko erakunde sozial eta politikoaren oso antzekoak ere izan daitezke. Ekintza zuzen ez-biolentoa eta desobediencia zibila era-bil ditzakete, baina interes-talde arruntenak ohi duten bezala korridore-etako edota bulegoetako azpilana ere egin dezakete. Nortasun edota bizimodu jakin baten aldeko eskari espresiboak planteatzen dituzkete, bai-na baita eskari instrumentalak ere, aldaketa soziala eta politikoa, go-bernuaren ekintza eta politika publikoak helburu izanik. Eta gehienetan beren ideiak edo programak askatzaileak baldin badira ere, gerta lite-keena da horrelako mugimendu batek aldaketa politikoari, sozialari edota kulturalari aurre egitea, mugimendu tradizionalistak edo neofa-xistak kasu. Edota kontramugimendu bat izatea ere, hau da, beste mugimendu baten aurka abian jartzen den mugimendu bat, emakumeen mugimenduak planteatzen duen aukera askatasunaren kontra sortuta-ko abortuaren aurkako mugimendua, adibidez. Eta kontua are kon-plexuagoa izan daiteke, aldagai horiek guztiak maila eta gradiente des-berdinetan nahasten baldin badira. Azken batean, aniztasun eta

pluraltasun horrek gizarte mugimendu zaharren eta berrien arteko aldeak ezabatzen ditu eta zailagoa egiten du beste ohiko eragile politiko batzuetatik bereiztea, alderdi politikoetatik eta interes taldeetatik, esate baterako. Eta alde on bat du: ekintza kolektiboa den oro aztertzeko esparru bakarra finkatzea ahalbidetzen du.

Nolanahi dela ere, ondorio gisa esan genezake, gizarte mugimendu batez ari garenean, (a) gizarte sareak ditugula aipagai, (b) eduki edota esanahi kultural, sozial eta politiko alternatiboa proposatzen dutenak, (c) ezaugarri instituzionalak eta anti-instituzionalak amankomunean dituztenak, eta (d) tokiz eta denboraz oso aldakorrek direnak. Gizarte mugimenduak, beste edozein gizarte errealitatearen antzera denboraren poderioz aldatu, garatu eta itxuraldatu egiten dira; gizakien antzera, jaiotze, hazi, ahuldu eta hil egiten dira, baina, oro har, gure artean behin betiko errotu dira. Beren izaera protestatzaile, gatazkatsu eta errebindikatzailea, eta gizarte eta gizadi gisa eratzen gaituen bizitza kulturean, sozialean eta politikoan beste jokabide eta estilo batzuekin parte hartzeko borondatea dira, beren aniztasuna gorabehera, ondoen definitzen dituzten ezaugarriak. Beren politika egiteko modua, batzuek *contentious politics* esaten diotena, beste era batekoa da, baina nolanahi ere, alderdi politikoek nahiz bestelako aktore politikoek duten politika egiteko modua bezain legezkoa. Legezkoagoa, agian, demokrazia parte-hartzailearen bidez demokrazia ordezkatzailea sakontzen duelako.

Gizarte mugimenduen azterketa

xix. mendean erabili zen lehendabiziko aldiz *gizarte mugimendu* hitza langile mugimenduz aritzeko. Mugimendu haren gorakada zela eta, garai hartan hastapenetan zegoen soziologia eskola (Marx, Weber, Durkheim) ekintza kolektibozko modu «berri» haiek deskribatu eta azaltzeko kontzeptuak lantzen hasi zen, analisirako paradigma teoriko nagusizat klaseen arteko borroka harturik. Paradigma horrek gaur arte iraun du, *gizarte mugimendu berriak* (pazifista, feminista, ekologista...) langile mugimendu *zaharren* programa askatzailea gaurkotzen duen subjektu historiko berria eratzen dutela uste dutenen eskutik (Offe, 1988).

1930eko hamarkadan mugimendu totalitaristak agertu zirenean eta ia herrialde hegemoniko guztietan astinaldi sozial latzak gertatu zirenean hautsi zen parekatze hori. Ameriketako Estatu Batuetatik *masa gizartearen* teoria heldu zen; teoria hori gizarte matxinadak nola gertatzen ziren eta gizarte industrial eta demokratiko haien barruan mugimendu faxista nola sortu zen ulertzen saiatzen zen, arrazionaltasun galtze horren zer-

gatia ulertzen. Teoria horren joera estrukturalak masa alienatuez hitz egiten zuen eta joera psikologikoak, berriz, anomiaz edota jokabide sozial desbideratuaz. Denbora igaro ahala, ekintza kolektibo horretan halako arrazionaltasun bat antzematen hasi ziren, eta lehen paradigma horretatik beste bi teoria sortu ziren: *portaera kolektiboaren* teoria (Smelser, 1989, jatorriz 1962koa; Turner eta Killian, 1957) eta *hautaketa arrazionalaren* teoria (Olson, 1992, jatorriz 1965koa).

Bi teoria horietan lehendabizikoaren ustez gizarte taldeen itxaropen materialak eta kulturalak zapuzten direnean sortzen diren gizarte tirabiren ondorio dira gizarte mobilizazioak. Hala ere, organizazio formalen eta gizarte mugimenduen artean leize gaindiezina zegoen, azken horiek egitura edota estrategia egonkorrik ez zutelako eta beren ekintzak espresibo hutsak zirelako, eta ez instrumentalak. Bigarrenak (gaur egun Elster-ek (1991) ordeztzen duenak) ikuspegi instrumental edo utilitarista batetik azaltzen zuen —eta hala azaltzen du oraindik ere— gizabanakoek gizarte mugimendu batean zuten parte-hartzea: aterako duen etekina —«materiala» batik bat, baina baita «soziala» ere— ekintza horrek eskatuko dion ordaina baino handiagoa izango dela uste baldin badu soilik mobilizatuko da gizabanakoa. Beraz, teoria baten eta bestearen artean dagoen alde nagusia arrazionaltasun horren subjektuan datza, batean gizarte-taldea edota gizarte-sektorea baita, eta bestean, berriz, gizabanakoa. Hala ere, oso bilakaera desberdina izan dute denbora aurrera joan ahala, izan ere, jokabide kolektiboaren teoria oso erreferente urruna da gaur, eta hautaketa arrazionalaren teoriak, berriz, benetako eskola bat sorrarazi du eta oso erreferente arrunta da egun, baita gizarte mugimenduak argitzeko ere. Horrek polemika ugari sortu du aurrerago aipatuko ditugun paradigma espezifikoagoak erabiltzen dituzten akademikoen artean.

1960ko eta 1970eko hamarkadak beste zedarri historiko bat dira gizarte mugimenduak aztertzeko ikuspegi bilakaerari dagokionez. Aurretiko langile mugimenduen edota mugimendu abertzaleen aldean berriagoak ziruditen ideien sorrerak (feminismoa, ekologismoa, bakezaletasuna, hautazko nortasun berriak...) eta ekintza kolektibo horiek beren artean antolatzeko eta gizartea eta politika aldatzeko estrategiak marrazteko gai ziren aktore politikoen mamitzen zituztelako ziurtasunak, ordu arteko paradigmak goitik behera birplanteatzea ekarri zuen. Birplanteatze hori bi korronteren iturri izan zen: europarrarena eta amerikarrarena; europarrak gizarte mugimendu garaikide horien *zergatia* aztertzen du batik bat, eta amerikarrak, *nola* antolatzen eta mobilizatzen diren.

Atlantikoaren alde honetan, beren berritasuna gertatzen da, dudarik gabe, deigarriena: nortasun berriak, forma berriak, subjektu eta ak-

tore berriak; hori da *gizarte mugimendu berrien* jatorria. Mugimendu horiek zergatik sortu diren azaltzera bultzatzen du berritasun horrek: Ongizate Estatuaren garapena dela eta heziketa mundu guztiarengana heltzeak eragin duen balioen aldaketa sakona (Inglehart, 1991), Ongizate Estatu horrek berak ezagutu duen zilegitasun-krisi larria eta demokrazia ordezkatzailaren ezgaitasuna balio horiek eskatzen dituzten adostasun berriak sortzeko (Offe, 1988).

Baina interes handia dago, horrez gainera, mugimendu horiek nork osatzen dituen eta zein ekarpen egiten duten jakiteko. Esate baterako, ikuspegi estrukturalistago batetik Touraine-k (1981) ekoizpen kultural eta material berrien egile gisa, eta azken batean, gogoeta kultural berri baten subjektu gisa deskribatzen ditu gizarte aktore edo mugimendu berri horiek. Marxistentzat, oro har, gizarte industrial aurreratuetakoko edo industriondoko gizarteetako eraldaketa sozialaren eragileak dira gizarte mugimendu berriak, bilakabidean dagoen langile mugimendu baten berezko ondorengoak. Ikuspegi kognitibo batetik, Melucci-k (1989), errealtatea interpretatzen duten, nortasun kolektibo bereziak sortzen dituzten eta sistemaren mugak apurtzeko eta egoera aldatzeko solidaritatean oinarritutako ekintza kolektibo bat garatzen duten espazio soziokultural berri gisa aurkezten ditu.

Bitartean, Ameriketako Estatu Batuetan, nagusi den logika arrazional/instrumentalaren ikuspuntutik aztertzen dira mobilizazio berriak, *baliabideen mobilizazioaren teoria* sortuz (Gamson, 1990, lehen argitalpena 1975koa da; Zald eta McCarthy, 1987). Teoria horrek gizarte mugimenduak nola antolatzen diren aztertzen du, eta bere ondorioen arabera, mugimendu horiek ez dira jokabide kolektiboaren teoriak deskribatzen zituen helburu jakinik gabeko protesta ekintza espontaneoak, aktore politiko guztiz legezko eta arrazionalak baizik, ondo hausnartutako ekintzarako helburu eta estrategiak dituztenak, beren eraginkortasuna beste edozein organizazio politikorena bezala, behar adina baliabide bildu eta erabiltzeko ahalmenean datzalarik. Teoria horrek, hasieran behintzat, hautaketa arrazionalaren teoriaren eragin handia izan zuen eta arreta berezia eskaintzen zien pizgarriei (materialei eta sozialei), funtsean kostuen eta onuren kalkulu utilitarioen arabera jokatzeko gaitasunak ekintza kolektiboan parte hartzeko erakarri, mobilizatu eta bertan eusteko beharrezkoa den baliabide horri. Ikuspegi kognitiboa izan da seguru asko, diskurtsoa analizatuz (Eder, 1996; Eyerman eta Jamison, 1991; Gamson, 1992; Klandermans, 1997; Snow, Rochford, Worden *et al.*, 1986), hau da, organizazioek errealtatea interpretatzeko eta ekintza kolektiboa justifikatzeko erabiltzen dituzten proposamenak eta estrategiak aztertuz, hautaketa arrazionalak testuinguru horretan dituen hutsuneak gainditzeko ekarpen handienak egin dituenak.

Estatu Batuetan, aurrekoa nolabait osatzen duen beste paradigma bat ere garatu zen. *Prozesu politikoa*-ren azterleez ari gara (McAdam, 1982; Tilly, 1978), kontestu makropolitikoak, erakundeen egiturak eta edozein mobilizazio baldintzatzen duten aktore politikoen arteko elkar-eraginaren jarraibideak aztertu zituzten, ekintza kolektiborako auke-
rak sorrarazten dituzten faktore eta baldintzei arreta berezia eskainiz. Ikuspegi horren esapide ezagunetariko bat *mobilizazio zikloak* dira.

Baina dudarik gabe, arrakasta handiena izan duen proposamena *aukera politikoa*ren *egitura* izan da. Gizarte mugimendu jakin batek diharduen testuinguru politikoari esaten zaio aukera politikorako egitura, eta testuinguru hori zenbait egitura-elementuren eta elementu koiunturalen konbinaketa gisa operazionalizatzen da; egitura elementuak lirateke esate baterako, Estatu baten zentralizazio maila, botere politikoa kontzentrazioa, botere horretara iristeko mekanismoak egotea edo ez egotea eta ekintza kolektibo horri ematen zaion erantzun nagusia; koiunturalak berriz, aliatuak izatea edo ez izatea, koalizio gobernu ez-egonkor bat edota eliteen arteko liskarrak egotea, eta abar. Tarrow (1997) Ameriketako Estatu Batuetan eta Kriesi (1992) Europan lirateke joera horren ordezkari ezagunenak.

Hala ere, gurea bezain ongi komunikatuta dagoen mundu batean, ezinezkoa zen guztiz bereizketa analitiko horri eustea, are zailagoa, gainera, ikuspegiak elkarren osagarri zirelako. Hortaz, 1980ko hamarkadaren erdi aldera bi korronteez bat egin zuten eta bizitasun handiko mestizaje baten iturburu izan ziren, beren proposamenen aberastasuna gaurko eguna arte sakonduz joan delarik. Gaur egun oso zaila da eskolak bereiztea, eta elkar baztertzen ez duten eta batzuek besteak bezain baliozkoak diren proposamen teorikoak eta metodologikoak dira nagusi. Batzuk, *ekintza kolektiboaren markoak* eta *aukera politikorako egitura* bereziki, soziologiaren eta zientzia politikoen beste arlo batzuetan erreferentzia arrunt bihurtu dira. Nolanahi dela ere esan daiteke, gaur egun, aipatu diren ikuspegi eta proposamen batzuk eta besteak konbinatuta sortzen den esparru teorikoa dela gizarte mugimenduak azterteko gehien erabiltzen dena.

Interesa duen irakurleak horri buruzko testu eta ikerketa ugari ditu eskura. Oso berria baldin bada ere —azken hamabost urteotan garatu baita batik bat—, gizarte mugimenduei buruzko bibliografia ugari dago. Azken mende erdian izan diren ia mobilizazio guztiak aztertu dira zehatz-mehatz eta ikerketa konparatzaile asko dago. Baina, zoritxarrez, gai horri buruzko argitalpen gehienak beste hizkuntza batzuetan daude, ingelesez batik bat; oso gutxi dira gaztelerara itzuliak, eta ia batere ez euskarara itzuliak. Jarraian, interesgarriak diren zenbait aipatuko ditugu.

Atzerriko ikerlari ospetsuen lan batzuk gaztelerara itzuliak izan dira, edota taldean egindako liburuetan sartu dira. Horrelakoak dira, esate baterako, Beck (1998), Castells (1998), Dalton (1992), Frankel (1989), Ibarra eta Tejerina (1998), Inglehart (1991), Laraña eta Gusfield (1994), McAdam, McCarthy eta Zald (1999), Randle (1998), Tarrow (1997), Touraine (1990) edota Zona Abierta aldizkariaren 54/55, 56 eta 69 aleak. Ondokoak, berriz, gazteleraz idatzitako kuestioaren egoerari buruzko laburpenak eta penintsulako egileen jatorrizko lanak dira: Casquette (1998), Durán Muñoz (1995), García de la Cruz (1990), Guillem (1994), Ibarra (1995), Ibarra (2000), Laraña (1999), Riechmann (1991), Riechmann eta Fernández Buey (1994), Sacristán (1987), Valencia (1997), Zubero (1996), Zubero, Corretja, Mardones *et al.* (1996).

Espainiako Estatuaz egindako analisisien esparruan honako hauek ditugu: Agirre, Ajangiz, Ibarra *et al.* (1998), Alberich (1993), Alonso (1991), Calle (2000), Castells (1986), Grau eta Ibarra (2000), Ibarra (1992), Pastor (1991), Pindado (2000), Rodríguez Villasante (1984), Sampedro (1997), eta merezi du, besteak beste, Documentación Social, En Pie de Paz, Papeles para la Paz eta Mientras Tanto bezalako aldizkariak ere kontuan izatea. Euskal Herriari dagokionez, berriz, honako hauek aipa daitezke: Ajangiz, Manzanos eta Pascual (1991), Andres (1980), Arrizabalaga (1997), Bárcena, Ibarra eta Zubiaga (1995), Barriocanal eta Zaldua (1997), Funes Rivas (1998), Joxemi Zumalabe Fundazioa (1999), Murguialday, Río, Anitua *et al.* (2000), Tejerina, Fernández eta Aierdi (1995), Urrutia (1985), eta Herria 2000 Eliza aldizkariaren 127 eta 133 aleak. Ez da zerrenda osoa, ezta gutxiagorik ere, eta barkamena eskatzen dugu alde bat utzitakoengatik.

Ezin dugu atal hau amaitu gizarte mugimenduen ikerketaren paradoxa bitxi bat aipatu gabe. Gizarte mugimenduak izatearen arrazoia aldaketa soziala eta politikoa eragitea izan arren, soziologo, politologo eta psikologo sozialek gizarte mugimenduen zergatiak eta nolakoak aztertu dituzte batik bat eta ez diote beren mobilizazioen eraginei eta eintza kolektibo horren ondorioei ia jaramonik egin.

Aldaketa sozialaren erreferentzia da definizio —hala klasiko nola garaikide— gehienen ardatza; gizarte mugimenduak bizitza politikoa eraldatzen duten eragile historikoak direla diote batzuek, eta besteek, berriz, agian gure gizartea aldatzen duten indar boteretsuenak (Sztompka, 1995:303). Azken ikerlari horren ustez, gizarte mugimenduek eragindako aldaketak lau maila edo egituratan gerta daitezke, hots: (a) errealitatearen ikusmolde eta interpretazio ideologikoan eta diskurtsiboan, hau da, egitura idealean; (b) gizarte arau, balio, jokabide, eta bizimodu berriak sartuz, hau da, arauen egiturari; (c) talde,

sare, koalizio eta aktore sozio-politiko berriak sortuz, hau da, egitura politikoan; eta azkenik (d) aukeren egituraren edo prozesu politikoan, ondasunen edo irabazien banaketa garrantzitsua eraginez. Bere ustez, barne morfogenesisian bertan hasten da gizarte mugimendu bat aldaketak eragiten, eta gizarte egituraren lau esparru horiei eraginkortasunez helduz gero iritsiko du soilik bere botere dinamiko osoa.

Hala ere, zailtasun metodologikoak direla eta —esate baterako, errealitate beraren gainean aktore politiko asko lanean aritzea, gizarte zientzien esparruan kausen kate bat finkatu ezina, egiturazko tirabira konplexuak izatea, eta abar— oso zaila, eta are ezinezkoa gertatzen da gizarte mugimendu baten ekintzen eta ondoren antzematen diren aldaketa sozial eta politikoen artean lotura zuzenak aurkitzea (Giugni, 1998; Rucht, 1992). Hala ere, azken urteotan oso ekarpen interesgarriak egin dira aldi berean luzetarako eta konparatzailea den diseinu metodologiko baten bidez (Ajangiz, 2001; Giugni, McAdam eta Tilly, 1999; Midttun eta Rucht, 1994; Rucht, 2000).

Guri dagokigunez, metodologiako eta analisirako ikuspuntu gisa, interesgarria iruditzen zaigu gizarte aldaketaren bideetan aurrera egitea, amaitu berria den mendearen azken laurdenean Euskal Herrian gertatu diren gizarte mugimenduen eraginari, arrakasta eta porrotei, ondorioei, eta nahitako eta nahi gabeko aldaketa sozialei buruzko galderei erantzuteko. Horri buruzko azterketa nahikoa ez dagoenez, zenbait gogoeta proposatuko ditugu ondoren eta irakurleari eskatuko diogu, ikerketan nolabait parte hartzeko, bere ondorioak ateratzen saia dadila.


Gida modura, lau dira gizarte mugimendu bat aztertzerakoan kontuan har daitezkeen eta ekintzaren ondorioak baldintzatzen dituzten ardatz edo eduki nagusiak: (a) organizazio egiturak edo moduak (organizazio sareen artekoak eta organizazio bakoitzaren barrukoak) edo mobilizazio egiturak, (b) diskurtsoa edota *ekintza kolektiborako markoak* eta horrek mobilizazioaren barne eraketan eta gizartearen aurrean zilegitasuna lortzeko duen papera, (c) aukera politikorako egitura, aliantza sistemak (kideetasunak dituzten aktore politikoak) eta gatazka sistemak (aurkariak edota antagonistak) barne, eta (d) ekintzarako estrategia eta modu egokienak. Hala ere, esan beharra dago, ez dagoela beste batzuk baino hobea den edota besteen aurretik lehentasuna duen organizazio modurik, diskurtso-rik, aliantzarik edota ekintzarako estrategiarik, mobilizazio jakin baten helburuari eta testuinguruari hobeto edo okerrago egokitzen zaizkion aukerak baizik. Iraganeko arrakasta eta hutsetatik ikastea da, zentzu horretan, biharko gizarte mugimenduak antolatu nahi dituztenen erronka handiena.

Euskal Herriaren gizarte errealitatea

Lehenik eta behin, euskal aktibismo sozialaren garrantzi kualitatiboa eta kuantitatiboa kontuan izan beharreko datu bat da. Herrialde batzuetako eta besteetako mugimenduak ikertzen dituzten oso lan gutxitan aipatzen da Euskal Herria —salbuespen gisa, 1987-1998 bitartean Europako 7 herrialdeetan ekologisten protestak, beren antolakuntza eta kanpainak aztertzen eta alderatzen dituen TEA (The Transformation of Environmental Activism: <http://www.ukc.ac.uk/sspsr/polsoc/tea.html>) Europako ikerketa proiektua aipa daiteke—, baina zeharkako indize batzuek, kapital soziala neurtzen dutenak, esate baterako, estatuko sailkapenaren buruan kokatzen dute gure lurraldea (Mota eta Subirats, 2000) eta, nolana dela ere, nahikoa da gure hurbileko erkidego politikoei azaleko begirada bat ematea, Euskal Herria era guztietako gizarte-talde, elkarte eta erakundeen hazitegia dela ohartzeko. Antimilitarismoak, ekologismoak, feminismoak, nazioarteko elkartasunak, euskarak, gazteriak, giza eskubideek, osasunak, sexualitateak, aisialdiak, hezkuntzak, komunikazioak, kulturak, kirolak, eta abarrek, askotariko esparruak osatzen dituzte eta euskal gizartearen eta euskal sistema politikoaren gain eragina duten mobilizazio eta protesta ugarien iturri izan ohi dira (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 1999).

Mobilizazioen ugartitasun horren azalpen sinesgarri bat —zenbait ikerlarik gure herriari gizarte mugimenduen gizartea esango lioke (Meyer eta Tarrow, 1998)— gure herria definitzen duten kulturaren, gizartearen, eta guztiz bereziki politikaren arloan, gatazkek duen nagusitasuna litzateke, agian. Beste herrialde batzuetan *normaltasun* handiagoa duten bitartean —neurri batean nahi izatekoa, baina alienatzailea ere bai, bestalde; zaila da tarteko puntu bat aurkitzea—, erro sakonak dituzten gatazkek konpondu gabe jarraitzeak, etengabeko mobilizazioaren dinamika eragiten du hemen.

Jatorriz Dieter Rucht-ena den proposamen batetik abiatuta egin dugun ondoko grafikoak (Rucht, 2000), Euskal Herriko gizarte mobilizazioen dinamika ulertzen lagun diezaguke: bere testuinguruko determinatzaileak, mugimenduek izaten dituzten organizazio egiturak eta estrategiak, eta protesten eta bitartekaritza politikoen emaitzak. Ikus daitekeenez, kulturaren, gizartearen eta politikan aldaketak sortzeko, aldaketa hori eragiteko ahalmena dutenengana jo ohi dute azken finean gizarte mugimenduek, baina era guztietako bitartekariak erabiltzen dituzte horretarako: alderdi politikoak eta presio eta interes taldeak, iritzi publikoa sortuz eta gizabanakoen jarrerak eta jokabideak aldatuz. Ez dituzte beren eskariak asmatzen, jakina, ingurunean dauden arazoak bildu eta eratzen dituzte. Eta era berean, beren egiturak eta aukerak ez



1. Irudia

Gizarte mugimenduen dinamika.

daude soilik mugitzen diren esparru politikoaren baitan, baita beren kontestu sozio-kulturalaren baitan, mugimenduen eta esku hartzen duten beste aktore batzuen arteko loturen eta zabalkundearen baitan, eta izandako emaitzen eta arrakastaren baitan ere.

Bat gatzoz Rucht-ekin dioenean, gizarte mugimenduei buruzko ia ikerketa guztiak, hala aukera politikorako egituraren esparru analitiko-a aukeratu dutenak, nola baliabideen mobilizazioaren teoriaren barruan daudenak, mugimendu horiek beren bilakaeran duten testuinguru estrukturalaren alde kulturala eta soziala alde bat utzi dituztela gehienetan. Aktore politikoen arteko jokoak ez du dena azaltzen. Eta Euskal Herriari dagokionez, bereziki, oso lagungarria iruditzen zaigu mobilizazioa eragiten zaion oinarri estrukturala ulertzea euskal gizarte mugimenduek ekarri duten bilakaera eta aldaketa sozio-politiko-a ulertzeko.

Euskal abertzaletasunaren eta bere gizarte sareen boterea, Bilbo Handiaren industrializazioa eta etorkin ugarien etorrera, ondoko industriaren birmoldaketa, euskara gaztelaniarekin eta frantsesarekin batera bizitzea, euskal lurraldearen tamaina txikia eta bere klimaren eta paisaien aniztasuna, bere herri eta eskualdeen idiosinkrasia sakona eta, oro har, landa eta nekazaritza munduaren eta euskal hiriburuen giro burges/proletario sinbiotikoaren arteko aldea, datu politiko hutsei

gehituta Euskal Herriaren ezaugarria den gizarte mobilizazioaren dinamika bizia nola eta zergatik gertatzen den ulertzen laguntzen duten datuak dira.

Europako beste herrialde batzuetan ez bezala, non 1960ko hamarkadaren bukaeran ikasle mugimenduak eta «ezker berria» esan zitzaionak beren aldarrikapen antiinperialistak jaulki zituztenean eta hazkunde ekonomikoaren eta ongizate materialaren eredia arbuiatu zutenean, eta oinarrizko demokraziaren, sexuen arteko berdintasunaren eta gizartezko eta arrazakeriazko bazterketarik ezaren, bakezaletasunaren, indarkeriarik ezaren, estalinismoaren burokraziaren eta gerra hotzaren aldeko apustua egin zutenean, Euskal Herrian Francoren diktaduraren aurkako enfrontamendua zen nagusi politikaren, gizartearen eta kulturaren testuinguruan. Are Iparraldean ere, 68ko Maiatzeko mobilizazioak baino gehiago, Espainiako diktadurak errepresaliatutako errefuxiatuak apoiatzeko kanpainak eta haiekiko elkartasuna gailentzen ziren politikaren arloan. Demokrazia berreskuratzeko borroka ez zuen Euskal Herrian gizarte mugimendu berriak —feminismoa, ekologismoa, antimilitarismoa— sortzea eragotzi, baina dudarik gabe, beren edukiak, estrategiak eta eragina baldintzatu zituen, lehen urte horietan behintzat.

Bi izan ziren, nagusiki, zentralismoaren menperaketarekiko, hizkuntz berdintasunarekiko, askatasun demokratikorik ezarekiko eta errepresioarekiko arbuioa hobekien ordeztu zuten mugimenduak. Industria langileen mugimendua eta beren organizazio politikoak eta sindikalak eta mugimendu abertzalea edota euskal nazioa askatzeko mugimendua izan ziren Francoren aurkako mugimenduari —dudarik gabe Estatu espainiar osoko garrantzitsuenari— eutsi zioten bi zutabe nagusiak. Gainera, Espainiako politika aldatu aurreko aldi honetan garrantzi bereziko gizarte mugimendu ditugu, ikasle mugimendua eta auzo edo herritar mugimendua. Biek oso Francoren aurkako diskurtso politiko nabarmena zuten eta lotura estua zuten institutuetatik eta unibertsitatetik, edota auzoetatik eta industria guneen inguruko herrietatik demokrazia, parte-hartzea eta hiriko bizi kalitatea hobetzea errebndikatzen zuten organizazio abertzaleekin eta ezkerreko organizazioekin.

Horrela, ETAko zenbait aktibistari heriotz zigorra ezarri zitzaion Burgosko Prozesuaren (1970) eta 1977ko amnistia orokorraren bitarteko denbora izan zen gizarte mobilizazioen eta protesten gailurra; grebak eta manifestazioak gorantz egin zuten eta beren aniztasun ideologikoa gorabehera eta helburuetan eta estrategietan desberdintasun nabarmenak izan arren parte hartzen zuten organizazio ugariak «ekintzarako batasuna»-ren aldeko apustua egin zuten, erregimena hankaz gora botatzeko bide onena zela ueste zutelako.

Espainiar trantsizioa gertatu zen moduak askoren itxaropenak zazpuztu zituen. Eliteen arteko itunak haustura demokratiko baten aukeak hondatu zituen eta Francoren erregimeneko agintariak egitura berrietan integratu zituen itunaren bidezko erreforma bat ahalbidetu zuen. Moncloako Itunak monarkia konstituzionala eta aukera politiko berrien esparrua den Autonomien Estatua ekarri zituen; euskaldunek Espainiako Konstituzioari eman zioten ezetzean, langileen mobilizazio maila handi bati eustean eta kulturari eta hizkuntzari buruzko eskarien jarraipenean islatu zen politikari, ekonomiari eta kulturari dagokionez hemen zegoen asegabetasun maila handia.

Erreformaren ondoren gizartea gero eta gehiago desmobilizatu zen, betiere aurreko mobilizaziko mailarekin alderatuta. Esate baterako, auzo mugimenduak krisialdi latza bizi izan zuen 1979ko udal hauteskundeen ondoren, beren buruzagiak ezkerreko alderdi politikoen buru izatera pasa zirelako eta, horren ondoren, udaletako kudeaketa-postuetara edota erakundeetako ordezkarietara-postuetara. Garai horretan, bestalde, beren «bezatze» prozesua, «segidismoa» eta erakundeetan zuten integrazioa gero eta handiagoa zelarik, agerian gelditu zen, langileen eta sindikatuen mugimenduek (CCOO eta UGT), eta ezker tradizionalako alderdi politikoei (PSOE eta PCE) generoari, nazio-nortasunari, desmilitarizazioari, bizi kalitateari edota ekosistemen errespetuari buruzko eskariei erantzuteko zuten ezintasuna (Alabart, 1998:144).

Hortaz, 1970ko hamarkadaren azken urteetan eta 1980koaren hasieran nabarmenago gelditu ziren gizarte mugimenduak, lehen ezkutuak edota demokrazia berreskuratzeko borroka nagusiarekin nahastuta baitzeuden. Hori dela-eta esan izan da Espainiako Estatuko gizarte mugimendu berrien ezaugarria «berandu agertu izana eta krisia oso goiz jasan izana» dela, eta hori, besteak beste, frankismotik Ongizate Estatu ahul baterako trantsizioa berezia izan zelako, berehala profesionalizatu ziren alderdi eta interes taldeen korporatibismo berria nagusitu zelako eta aurretik kultura gehienbat materialista eta parte hartzeko joera urrikoa zegoelako (ikus, esate baterako, Pastor, 1998:73). Horri buruzko xehetasun asko egin ahal izango lirarteke, Espainiako Estatuak oso mobilizazio feminista, ekologista, bakezale eta antimilitarista garrantzitsuak ezagutu baititu 1960ko hamarkadan hasita, eta batzuen batzuk Europako beste herrialde batzuetako beren kideak baino askoz luzarago iraun baitute.

Nolanahi dela ere, bi desberdintasun nabarmen daitezke Euskal Herriko gizarte mugimendu berri horien formulazioan Estatuko gainerakoekin alderatuta. Alde batetik, antolatze gaitasuna, mobilizaziora bultzatzeko ahalmena, eta kulturaren, gizartearen eta politikan eragin handiagoa izatea. Eta bestetik, aberriaren subiranotasuna, euskal erki-

degoaren autodeterminazioa helburu duen gizarte mobilizazioaren jarraipena. Horrek, dudarik gabe, mobilizazioen testuinguru orokor handiagoa bultzatzen du gizarte mugimendu berrien esparruan, baina aldi berean, zorrozki baldintzatzen ditu beren ekintzarako ahalbideak eta beren proposamenen berezitasuna eta autonomia. Eta halaxe da, izan ere, euskal ezker abertzalearen multzo handi batek nahiago du «herri mugimenduez» hitz egin, «gizarte mugimenduez» hitz egin baino.

Ondoren, beren mobilizazio maila dela eta, gizartean, kulturaren eta politikan eragin dituzten aldaketak direla eta, eta gizarte mugimendu garaikideen definizio nagusiarekin bat datozelako gure ustez aipagarriak diren euskal gizarte mugimenduak aztertzeari ekingo diogu. Euskara eta euskal kultura berreskuratzearen aldeko mugimenduaz, emakumeen mugimenduaz, mugimendu antinuklearrak eta ekologistak, bakearen aldeko eta militarismoaren aurkako mugimenduaz eta beste herriekiko elkartasun mugimenduaz ari gara. Gure asmoa ez da den dena jasotzea, ezta gutxiagorik ere. Eta berez, gogoz kontra bada ere, alde batera utzi ditugu, besteak beste, sexu askatasunaren mugimendua eta mugimendu autonomoa —okupak, gaztetxeak eta irri libreak— edota globalizazioaren aurkako mugimendu berri-berria (Hemen eta Munduan, ATTAC,...). Bestalde, eta zergatia nabarmena da, gizartearekin baino politikarekin zerikusi handiagoa dutelako eta alderdiak, sindikatuak edota presio taldeak bezalako beste aktore politikoaren kategoriatik hurbilago daudelako —eta are gehiago Euskal Herrian, familia politikoetan biltzen baitira—, multzo honetatik kanpo utzi ditugu era berean mugimendu abertzaleak, sindikalak, ikasleenak eta errepresioaren aurkakoak.

Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua

Ez da berez mugimendu berria edo gaztea. Bernart Etxeparek 1545ean «Linguae Vasconum Primitiae» plazaratu zuenetik, euskararen eta euskal kulturaren defentsak esperientzia zikliko asko bizi izan ditu. Hala ere, xix. mendearen bukaeran euskal abertzaletasuna jaiotzearekin batera nabarmen piztu ziren euskal hizkuntzaren aldeko errebindikazioak. Horrela, euskara euskal etnizitatearen ezaugarrietako bat bilakatu zen, eta politikan, berriz, Euskal Herriaren nortasun kolektibo bereziaren helburu nagusietako bat.

Frankismo garaiko errepresioaren ondorioz, ia lau hamarkadaz agertoki eta jarduera publikotik desagertu zen euskara, separatismoaren ikurtzat jotzen baitzen erregimenaren garaian. Eskolan, kalean, administrazioan eta are elizan ere euskara erabiltzeari utzi zitzaion, eta,

beraz, familiako, baserriko eta tabernako esparrura mugatu behar izan zuten. 1949 urtean argitaratu zen Gerra Zibila amaitu zenetik lehen euskarazko liburua, aurretik zentsura gainditu ondoren, jakina. Hala ere 1960ko hamarkadan hasi zen jada gizarte mugimendu bat eratzen, garai hartan oraindik ezkutuan, euskararen batasuna eta normalkuntza helburu zituelarik, eta horrekin batera euskal eskola —ikastola— abiaraztea, euskal hiztunak alfabetatzea eta ez zekiten helduei euskara irakastea, eta euskara euskal kulturaren arlo guztietara zabaltzea, artearen eta kirolaren mundutik hasita, musikaren eta literaturaren mundura, unibertsitatera, enpresara eta administraziora.

Xede, helburu eta norabideen espektro zabal hori dela eta, euskararen eta euskal kulturaren aldeko gizarte mugimendua da, dudarik gabe, aztertuko ditugun guztien artean anitzena, zabalena eta askotarikoena. Mugimendu horretan, eta batzuk baizik ez aipatzearren, espektro zabaleko euskal erakunde nazionalak nahastu dira, esate baterako, Ikastolen Elkarteak, Udako Euskal Unibertsitatea —1973. urtean jaioa— edota AEK, helduak euskalduntzeko erakundea; Argia edota Euskaldunon Egunkaria bezalako aldizkari eta egunkariak, edota Topagunean biltzen diren 30 toki aldizkari eta talde baino gehiago; UZEI edo Elhuyar bezalako institutu linguistiko-zientifikoak, Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren Euskara Batzordea bezalako sektore-elkar-teak, eta hamarnaka toki-ekimen, Arrasate Euskaldundu Dezagun, esate baterako.

Entsalada handi horren osagaiak ordenatzen ahaleginduz, P. Agirrebaltzategi bi sailkapen eskaini dizkigu. Lehendabizikoan (Agirrebaltzategi, 1995), baliabideei eta antolatzeke moduari begiratuta, erakunde tekniko-enpresarialak (Elhuyar, UZEI, Argia, Egunkaria, Siadeco,...), profesional-sindikalak (idazleen, itzultzaileen, antzezlen eta abarren elkar-teak) eta herri erakunde militanteak (AEK, EHE, ikastola,...) bereizten ditu. Eta bigarreanean (Agirrebaltzategi, 1999:60) unibertso hori hiru taldetan banatzen du, ikuspegiaren edo lanerako norabideen arabera:

- a. Ikuspegi edota norabide politiko-instituzionala duten erakundeak, hau da, erakundeei hizkuntza normalkuntzarekiko duten erantzukizuna bete dezaten eskatzeko antolatu diren taldeak.
- b. Ikuspegi antropologiko-komunitarioa duten erakundeak, boterea eta erakunde politikoak bigarren mailan utzita, euskara sustatu, zabaldu eta indartzeko asmoz euskal hiztunen taldearekin lan egiten dutenak.
- c. Eta izaera soziologiko-dialektikoa duten erakundeak, elkar-teen eta erakundeen artean hizkuntza berreskuratzeko lana koordinatzeko eta planifikatzeko zereginetan dihardutenak.

Bada beste taxonomia bikoitz bat ere, adierazkorragoa, agian, euskararen aldeko erakundeak kulturari edota botereari buruzko duten estrategiaren arabera bereizten dituena (Agote, 1995:86). Alde batetik, egunerokotasunean oinarrituta eta alderdi politikoen arteko interferentziei eta liskarrei jaramonik egin gabe euskal hiztunen taldea egituratzen eta indartzen saiatzen direnak daude. Beren proposamenak pragmatikoak, positiboak eta errealistak dira, eta helburuak pixkanaka iristen saiatzen dira. Beste batzuk, berriz, botere-estrategia bati atxikirik, hizkuntz politika ofiziala kritikatzeko dute nagusiki, elebitasunari elebakartasuna kontrajarri diote eta gehienetan errebindikaziozko jarrera batetik abiatuta irakaskuntzaren eta administrazioaren sektoreetara zuzendu dute beren jarduerak. Presio soziala, salaketa eta borroka, ekintza erradikalak barne, izan dira beren ohiko bitartekoak. Esanenez, azken 25 urteotan bi mutur horien artean ibili dela mugimendua. Berrius ditzagun gertakizun garrantzitsuenak.

1975eko azaroan Franco diktadorea desagertu zenean, lehen aldian botere eta legegintza hutsune bat izan zen gai horretan, eta orduan euskararen aldeko gizarte mugimenduak gorakada handia izan zuen. 1977an 150.000 izenpe jaso ziren euskararen ofizialtasunaren alde, 711 euskal elkarteren bermea zutela, gainera, eta Gipuzkoako ikastolek urtero antolatzen duten kilometroak-en lehen ekitaldia egin zen; ekimen hori gero gainerako euskal lurraldeetara hedatuko zen (Araba Euskaraz, Ibilaldia, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats). Hurrengo urtean, 1978an, Euskararen Liburu Zuria argitaratu ondoren, Euskaltzaidiak «Bai euskarari» kanpaina abiarazi zuen, zenbait hilabetez antolatutako zituen ekintza jendetsuetan hamarna milaka pertsona mobilizatu. Kanpaina horrek AEKak bi urtez behin antolatzen duen Korrikari pasazio lekukoa (AEK, 1997).

Gernikako Estatutuak (1979) eta Nafarroako Foruaren Hobekuntzak (1982) Euskararen Erabilaren Legea (1982) eta Euskararen Lege Forala (1986) argitaratuko ziren bigarren aldi bat ekarriko zuten, eta gobernu autonomiko berriek eta beren diputazioek hizkuntza politika bat, itzulpen zerbitzuak eta bulego teknikoak antolatu zituzten. Iparraldean, ordea, ez zen une horretan aldaketa nabarmenik gertatu eta 1990 arte itxaron beharko da, mugimendu euskaltzalearen eskariei erantzuten saiatuko den Euskal Kultur Erakunde (EKE), erakunde erdi publikoa sortzeko (Ornoz, 1995).

Hortik aurrera hamarkada luze bat iraungo zuen hirugarren fase bat hasi zen, eta fase horretan, gizarte mugimenduaren zati handi bat Pirinioen bi aldeetako erakunde politikoekin arituko zen borrokan euskararen alde. Desadostasun politiko horrek zenbait ondorio izango zituen. Alde batetik, talde, entitate eta erakunde batzuk eta besteak el-

karrekin koordinatzen eta batzen saiatu ziren, eta horrek toki, zona, eskualde, probintzia eta nazio mailako ekimenak sorrarazi zituen. 1983an, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, UEU, Argia, Jakin eta beste zenbait tokiko talde bildurik EKB, Euskal Kulturaren Batzarra sortu zen. Nafarroan eta Iparraldean EKBez gainera, Oinarriak eta Deiadar koordinadorak sortu ziren, eta horrek zenbait gainjartze eta desadostasun ekarri zituen berekin. Bestalde, epe horretan oso polemika eta borroka garrantzitsua izan zen AEKren eta HABEren artean helduen euskalduntze politika aurrera eramateko lehentasuna —mugimenduzkoa/instituzionala— norik zuen erabaki nahirik. Zenbait euskaltegiak bi bideetatik at gelditzea erabaki zuen eta aurrerago —barrurantz izan bazen ere— AEKren zatiketak etorri ziren Bizkaian (Bertan) eta Araban eta Nafarroan (IKA), antolakuntzari zegozkion desadostasunak zirela eta.

Une hartan, Jose M.^a Sanchez Carrionek (1987) bere «Un futuro para nuestro pasado» lanean aurkeztu zuena bezalako gogoeta teorikoak agertu ziren, alderdi eta aukera ideologiko desberdinen arteko komunikaziorik ezaren eta borroka sektarioaren ondoko adorerik ezaren sentimenduari eta atomizazioari erantzun bat eman nahirik. Sanchez Carrionen proposamena laburtuz, bere ustez beharrezkoa da euskaltasunaren formulazio aurre-politiko independente bat egitea, zatiketa ideologikoen aurrekoa; euskaldun kontzientzia nazional horri batasuna ematea beharrezko baldintza litzateke euskarak bizirik irauteko.

Baina are, batzuentzat euskararen aldeko gizarte mugimenduaren periferizazio eta ghattizazio arriskutsua iragartzen zuen borroka-dinamika horrekin ere, errebindikazio politikoetatik at proposamen praktikoak ekarri dituzten halako aberastasuna eta aniztasuna posible izan dira. Etengabeko tirabiran ekimen aglutinatzaileak garatu dira, «Euskararen Unibertsoa», esate baterako, eta askoz berrikiago, 1999an, Euskararen Kontseilu Soziala abiarazi da. Kontseiluak euskararen alde borroka egiten duten erakunde guztiak bere baitan integratzea lortu du, eta, gainera, 650 enpresa, entitate, erakunde eta herri organismok parte hartzeko hitza eman duten mobilizazio, planifikazio eta partaidetza politiko bat jarri du martxan. 1999ko abenduaren 26an, Kontseiluak beste «Bai euskarari» bat antolatu zuen —sinbolo bikaina—, eta euskal biztanlego osoaren %11 bildu zuen bost euskal hiriburuetako bost futbol zelaitan.

Horrela, bada, gaur egun etapa berri eta itxaropentsu batean aurkitzen gara, eta honako hauek lirateke etapa berri honen ezaugarriak: euskararen aldeko gizarte erakundeen hitzarmen nazional zabal bat izatea, hitzarmen horrek enpresaren, ekonomiaren eta politikaren munduko sektore asko abian jarri izana, eta, Euskal Autonomia Erkidegoan behintzat, euskararen aldeko gizarte mugimenduaren eta Administra-

zioaren artean elkarlan maila handia izatea. Nafarroan eta Iparralden errealtate sozio-politikoak askoz okerragoa da, eta horren adibidea da, esate baterako, Nafarroako Gobernuak duela gutxi bere lurraldearen zenbait tokitan hizkuntza horren koofizialtasuna indargabetzeko hartu duen erabakia. Estrategia eta mobilizazio berriak bultzatzeko arrazoiak ez dira, beraz, desagertu. Euskararen aldeko gizarte mugimendua oraindik ere ohartzen da, inoiz baino eskola gehiago, pedagogiazko eta komunikaziorako bitarteko gehiago, eta ikastearen eta zabaltzearen aldeko jende gehiago izan arren, euskararen egoera diglosikoa ez dela desagertu, eta are egoera horrek aurrera egin duela zenbait alderdiri dagokionez.

Emakumeen mugimendua

Mendebaldeko ia herrialde guztietan bezala, 1970eko hamarkadan feminismoa izan zen Euskal Herrian sortu zen gizarte mugimendu berria. Baina hori bai, ezaugarri bereziak zituela. Joyce Gelb-ek (1992) dioen bezala, ez dago feminismo bakar bat, herrialde bakoitzeko historiara, kulturara, bizimodu politikora egokitutako mugimendu feministak baizik. Egile horrek, esate baterako, Suediako edota Estatuaren bidetako berdintasun ereduak, Britainiako edota ezkerreko mugimendu ideologikoa eta Iparrameriketako mugimendu liberala edota interes taldeena bereizten ditu. Euskal Herrian, ikusiko dugun bezala, feminismoak ezin izan zion jaio zen eta garatu zen euskal gizartearen idiosinkrasia-
ren eraginari itzuri egin, eta bere lehen aldi behintzat, mugimendu feminista errebindikatzailerik eta instituzionalizatu gabekoa izan zen. Matriarkatuaren mitoak gaur arte iraun duen patriarkatuaren aurkako borroka bat ekarri zuen.

Zaila da Emakumeen Asanbladen inguruan 1970eko hamarkadan jaio zen euskal feminismo berriaren eta Eli Gallastegik (EAJ) 1922an sortutako Emakumeen Abertzale Batza erakunde abertzalearen arteko lotura historikorik aurkitzea. Irlandako abertzaleen ereduari jarraituz, euskararen eta euskal aberriaren iraupena ziurtatzea zen azken horren helburua, eta 1936an 38.500 emakume afiliatu izatera iritsi zen; eta horrek, dudarik gabe, Euskal Herriaren historia osoan izan den emakume-erakunde handienaren izaera ematen dio.

Frankismoaren amaieran euskal mugimendu feminista sortu zenean, etxetik kanpo lan egiten zuen euskal emakume asko zegoen, hirugarren sektorean batik bat (osasungintzan, irakaskuntzan, garbiketan, administrazioan eta bulegoetan, dendetan, bankuetan,...). Hori dela eta «Emakumeen beren pentsaera aldatu zen, kultura handiagoa-

ren eta askatasun ekonomiko handiagoaren eskutik, lanaldi bikoitzaren zamagatik eta erregimen frankistaren borondatearen aurka, ohiturak eta jokabide sozialak zertxobait liberalizatu zirelako» (Euskadiko Emakume Asanbladak eta Aizan, 1986:257).

Leioan egin ziren Euskadiko Lehen Jardunaldi Feministetan (1977) agirian gelditu zen bezala, diktaduraren amaieran euskal langile mugimenduetan eta mugimendu abertzaleetan sartu ziren emakume ikasle eta langileak ohartu ziren emakumeentzako berdintasun juridikoaren eta politikoaren defentsaren atzean betiko matxismoa eta puritanismoa zeudela, patriarkatua ez zela kapitalismoaren ezaugarria soilik, organizazio abertzaleek eta ezkerreko organizazioek ere munduaren ikuspegi matxista berbera zutela. Eta horrela hasi ziren herriz herri, auzoz auzo, emakume taldeak sortzen, eta Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako Emakumeen Asanbladetan bildu ziren. Talde horiek zioten «pertsonek dena politikoa dela», patriarkatuak goitik behera markatzen duela gizartea, familia dela emakumea zapaltzen duen erakunde nagusia eta emakumeak baduela sexualitate bat, zapalduta baldin badago ere. Laburbilduz, emakumearekin zerikusirik ez zuen kanpoko mundua deskubritzeari ekin zioten lehen fase batean eta gizartearen, ezkerrearen, militantziaren, politikaren eta abarren kritika erabateko, bibil eta erradikala egin zuten, horren helburu bakarra beren generoaren izaera ezutu eta baztertzea indartu eta aldarrikatzea zelarik.

Kontzientzia hartze horrek eratu zuen, hain zuzen ere, kapitalismoaren eta elizaren aurkako mugimendu feminista, unitario eta basekoa, asanblearioa eta autonomoa, ezkerreko alderdi eta sindikatuetako eta bestelako kolektibo eta gizarte mugimenduetako (antinuklearretako, internazionalistetako, antimilitaristetako,...) militante bikoitz askorekin. Oso mugimendu kementsua izan zen. 1979an, «amnistia emakumeentzat» kanpaina eta abortoak egiteagatik epaitu ziren Basauriko 11 emakumeei laguntzeko egin zen abortoaren aldeko kanpaina zirela-eta euskal gizarteak apoio handia eman zion mugimendu feministari; trantsizio politikoaren une garrantzitsu hartan mugimendu hark zuen errepresioaren aurkako kutsuak asko lagundu zuen, dudarik gabe. Eta 1980ko hamarkadaren erdi aldera, Leioako Bigarren Jardunaldi Feministak (1984) gizarte-errealitatearen zati jakin batzuk konkistatu nahi zituen mugimendu feminista errebindikatzaile eta lehiatsu baten islada izan ziren, lanaren eta hezkuntzaren mundua, hain zuzen ere, horietan gizonetzotasunaren eta emakumezotasunaren molde estuak «bigarren sexuarentzat» diskriminazioa eta zapalketa baitzekarten.

Hala ere, Leioako lehen Jardunaldietatik nabarmenak ziren elkarren lehian zeuden zenbait joera, eta hurrengo hamarkadan horrek zatiketak, berriz elkartzek eta euskal feminismoaren enbor nagusitik, Ema-

kumeen Asanbladatik berezitateak erakundeak sorrarazi zituen. Hala ere, Emakumeen Asanblada haietako batzuk (Bizkaia, Araba, Donostia, Nafarroa,...) izan dira, hain zuzen ere, asanblearismoari, antolakuntza-aren batasunari eta pluraltasun ideologikoari gaur arte eutsi diotenak.

Euskal feminismoaren zatiketa handiak *berdintasunaren feminismoa*-ren eta *desberdintasunaren feminismoa*-ren arteko bereizketatik haraindi doaz, azpian bereizketa hori beti baldin badago ere. Hasieratik izan zen feminismo independente bat (feminismo autonomoa), bere ustez ezkerreko alderdien (feminismo marxistaren) «dirigismo arrotza» zena kritikatzeko zena, eta Lanbroa taldearen edota alderdietatik Independiente diren Emakume Asanbladen iturburu izan zena. Bestalde, 1970eko hamarkadaren bukaerako aldaketa politikoaren une hartan ohikoa zen feminismo aktibista eta errebindikatzailerik, kanpaina egile baten, eta kanpora eta botere politikoari begira zegoen feminismo baten aldamenean, gogoetaren, barrura begiratzen zuen, ikasketaren, eztabaida teorikoaren, sakontzearen eta autokontzientziaren feminismo bat sortu zen. Laugarren, baina antolakuntzari eta diskurtsoari dagokienez izan zituen ondorioengatik aurrekoak bezain garrantzitsuak, euskal nazioaren arazoa dago eta, zehazkiago, indarkeria politikoa, euskal feminismoaren barruan arrasto bereizgarria marraztu zuen faktore gisa. Indarkeriaren aurka dagoen feminismo unibertsalista baten aldamenean zapalketa hirukoitzari (emakumea, nazioa eta klasea) aurre egiten dioten Aizan! (gaur egun Egizan!) bezalako taldeak aurkitzen ditugu. Eta, bestalde, ez dira falta bestelako ezaugarrietan oinarrituta beste era bateko talde feministak osatu dituztenak, lesbiana taldeak, emakume gazteenak edota internazionalistak, adibidez.

1980ko hamarkadan, beste gizarte mugimendu batzuetan bezala, indarkeria eta indarkeriarik eza, euskal feminismoaren barruan desadostasun sakonak eragin zituzten estrategiak izan ziren. Emakume batzuk uste baldin bazuten ere, talde zapaldu bat ziren aldetik guztiz legezkoa zela borroka egiteko indarkeria erabiltzea, beste batzuk, berriz, uste zuten indarkeriazko borrokaren metodoak ezinezkoa egiten zuela patriarkatuarena ez bezalako litzatekeen mundu ez-biolento bat iristea. Euskal feminismoak, jakina, ezin zuen euskal ehun sozio-politiko goitik behera eta ezker-eskuin zeharkatzen zuen eztabaida saihestu.

1980ko hamarkada honetan sortu ziren, hain zuzen ere, gaur egungo mundu feminista osatzen duten talde gehienak. Askok eta askok Emakumeen Asanbladetatik ateratakoak dira (Aizan!, Lanbroa, Donostiako Independienteak, Lesbianen Kolektiboak...) baina badira horietatik at sortutakoak ere, Forum María de Maeztu edota Agora Feminista, esate baterako. Homogeneotasuna, koherentzia eta diskurtso propioa aurkitu nahia dago zatiketa horren oinarrian.

Euskal Autonomia Erkidegoan 1980ko hamarkadaren amaieran Instituto Vasco de la Mujer/Emakunde agertzea beste tirabira eta desadostasun iturri bat izan zen. Hasiera batean, bai Emakumeen Asanbladak eta bai Aizan!-ek gaitzetsi egin zuten bere sorrera eta erakunde horrek euskal mugimendu feministaren jarduera-eremuetan esku hartzeko zilegitasunik ez zuela kritikatu zuten. Baina Espainiako Emakumearen Institutuak ez bezala izaera partidista nabarmenik ez zuenez Forum María de Maeztu edota Clara Campoamor Elkarteak bezalako beste talde batzuek bere sorrera bultzatzea erabaki zuten. Emakunderen sorreraren inguruan, feminismoaren erreformismoaren edo instituzionalizazioaren inguruan desadostasun horiek eta eztabaida horiek Euskal Herrian Estatuko beste alde batzuetan baino bortitzagoak izatea, gure herriko tirabira sozio-politikoaren egoera bereziarekin loturik egongo litzateke.

Hala ere, gauzak aurrera egin dute eta gaur egun Egizan da bere diskurtsoan Emakunderekiko enfrentamendu garbia mantentzen duen bakarra, bere ustez, oso kaltegarria delako sexuen berdintasuna dagoen estatu batean bizi garela uste izatea. Gainerako euskal mugimendu feministak, Emakumearen Euskal Institutuarekiko adostasun handiagoa edo txikiagoa izanik, nahiko harreman onak ditu eta erakunde horrekin lanak banatzen ditu, hark ordaintzen baitu, gainera, talde horien ekintzen zati handi bat. Zentzu horretan, esan genezake mugimendua gero eta instituzionalizatuagoa dagoela, antolakuntza anitzen esparru batean.

1994an, Euskadiko Hirugarren Jardunaldi Feministak atzera begiratzeko ahaleginak ziren, emakumeen egoerak eta mugimendu feministak berak izandako aldaketa garrantzitsuak eztabaidatuz, eta horrekin batera, baita gai berriak eta bidegurutze berriak ere (Euskadiko Erakunde Feministen Koordinakundea, 1996). Bi hamarkadaz lanean aritu ondoren, euskal feminismoa anitzak bere baitan dituen desberdintasunak airtortu eta harremanak hobetzen saiatu zen, jakinik, ustezko berdintasun juridikoa eta legezkoa gorabehera bide luzea egin beharko dela oraindik emakumeak lanean eta unibertsitatean, etxean eta kalean benetan aske eta gizonen pareko izateko. Eta aho batez onartu zuten emakumeek euskal erakunde sozial eta politikoetan parte hartzeak desagertaraziko dituela soilik bortxaketak eta erasoak, diskriminazio laboralak eta ekonomikoak, lanaldi bikoitzak eta homofobia.

Hala ere, badira botere politikoarekin harremanak izateko beste modu batzuk eta beste jokabide batzuk. Lanbroa edota Plazandreek taldeek, esate baterako, ez dute begi txarrez ikusten euskal alderdi politiko feminista bat sortzea; berez, pare bat aldiz aurkeztu dira Donostiako udal hauteskundeetara. Beste erakunde batzuek Legebiltzarrean

ordezkaritza duten alderdi politikoak beren zerrendetan ordezkaritasun kuotak onartzera eta emakumeak kargu publikoetan egotea ziurtatzera behartzen dituzte. 1977tik hona egoera hori asko hobetu da, baina ez nahikoa, Iruñeako eta Gasteizko ganberetan, emakumeak %28 eta %29 dira, hurrenez hurren (Elizondo, 1995). Beste organizazio batzuentzat, azkenik, patriarkatuaren aurkako borroka, genero nortasun bat eraikitzea eta, oro har, erasoak eta zapalketa salatzea dira oraindik ere beren lanaren ardatz nagusiak.

Hortaz, 1990eko hamarkadako feminismoak mila aurpegi ditu, eta itxura guztien arabera diskriminazioaren ordez sexuen arteko berdintasuna iritsi den gizarte batean dihardu lanean. Hezkuntza guztien irismenean egotea, eta neurri txikiagoan baita lan merkatua ere, edota gauzez atera ahal izatea bera, itxuraz garrantzirik ez duena, gizarte industrial aurreratuetan oro har eta euskal gizartean bereziki feminismoa garaile atera dela erakutsiko luketen aldaketa sozialak lirateke; bilakera hori gertatzeko legoke oraindik beste herrialde batzuetan eta beste gizarte batzuetan, hegoaldean batik bat. Euskal emakumeen errealitatearen ikuspegi idiliko eta faltsu horri uko eginik, Euskal Herriko mugimendu feminista era askotako gizarte egoera premiazkoei erantzuten saiatzen da gaur egun (gazteak, langileak, atzeritarrak, prostitutak, lanik gabe daudenak, bananduak edota etxeoandreak), eta gainerako gizarte mugimendu alternatiboak, eta alderdien eta sindikatuen barruan, edota, besterik gabe, eguneroko bizitzaren arlo batzuetan eta besteetan patriarkatuaren aurka borroka egiten duten pertsonak beren aliatu onenak direlako uste osoa dute.

Mugimendu antinuklearra eta ekologista

1970eko hamarkadan Euskal Herrian ingurugiroarekiko kezka sortu zenean, tartean ez zebilen, Europako beste herrialde batzuetan bezala, natur zientzietako elkarterik —biologiako profesionalek sustatutako ANAN (1971) talde nafarra bezalakoak oso gutxi dira—, bere sortzailak auzo mugimendu antifrankistatik zetozen. Ingurune hartan hasi zen eztabaida eta askotan langileentzat bizi baldintza hobek eskatzea (Gas Erandion, Dow Chemical Leioan, Sefanitro Barakaldon,...) lotzen zitzaion energia nuklearrarena bezalako arazoei (Lemoiz, Ea-Ispaster, Deba, Tutera) eta naturguneen defentsari (Belagoa, Gorbea, Urdaibai, Txingudi,...).

Hasieran, Komite Antinuklearren jendaurreko diskurtsoa kapitalismoaren aurkakoa zen argi eta garbi; berez, uko egiten zioten «ekologista» hitza erabiltzeari, ez baitziren aukera kontserbazionistaz fio, eta

ezta energia nuklearraren aurkako jarrera tinkorik ez zuten talde ez hain politizatuez ere. Teknologia nuklearraren erabilera zibilari uko egi-teaz gainera, energia nuklearrak berekin dakarren gizarte eredia zalan-tzan jarri zuten eta joera asanblearioak, burokraziaren aurkakoak eta autonomoak hartu zituzten (Bárcena, Ibarra eta Zubiaga, 1995).

Lemoizko zentral nuklearraren aurkako mobilizazioa izan da, dudarik gabe, mugimendu horrek bere historian izan duen gertaerarik go-goangarriena. Trantsizio politikoaren une historiko hartan, frankismo garaiko erakunde zaharrek ospea erabat galdua zutenean eta autonomia berrienak oraindik errotu gabe zeudenean, Lemoizko zentralaren proiektua froga harria izan zen jokoan zeuden aktore guztientzat. Harrisburg-eko (1979) istripuaren ondoren, mugimendu antinuklearrak «Euskadi ala Lemoiz» leloa erabili zuen frankisten plan nuklearraren eta euskaldunen autodeterminazio nahiaren arteko kontradizioa muturre-raino eramanez, eta horrela, komunitate abertzalearen mobilizatorako dinamika indartsuarekin bat egin zuen. Batzorde Antinuklearrek zioten zentral nuklearraren eraikuntzan aurrera egitea euskal herriari erabaki-tzeko eta autogobernurako ahalmena ukatzea zela (Eguzki, 1987:28).

Egia esanda, agintari autonomiko hasi berriak zentral nuklearraren alde zeuden, baina beren boterea mugatua eta sinbolikoa zen oraindik eta 1980an, Euskadin Lemoizko proiektuari buruzko erreferendum bat egingo zutela agindu zuten, baina hori inoiz ez zen egin. 1982an bertan behera utzi zuen proiektua gobernura iritsi berria zen PSOEek —Madrileko gobernuak Euskal Herrian kokatzeko proiektatuak zituen 6 erre-aktore nuklearretatik, benetan eraiki zen bakarra ere ez zen azkenean abiarazi— parte-hartze handia izan zuen desobedientzia zibilaren kan-paina luze eta gogor baten ondoren (hitzaldiak, asanbladak eta bilera publikoak, manifestazioak eta kontzentrazioak, ibilaldiak eta kanpal-diak, eserialdiak eta itxialdiak,...), Administrazioari eta enpresa eraiki-tzaileari (Iberduerori) zuzendutako sabotaje ekintza ugariren ondoren eta ETaren zenbait ekintza armaturen ondoren. Euskal mugimendu ekologista jaio berriak garaipenaren bataioa izan zuen, beraz, eta hura garaipen kulturala, politikoa, prozedurazkoa izan zen, baina baita edu-kizkoa ere: Euskal Herrian ez dago gaur egun zentral nuklear bakar bat ere (Zubiaga, 1995:137).

Hala ere, barru aldera begira, garaipen hura garrantz samarra izan zen. Heterogeneotasun handiak, Lemoizko helburu zehatzak kanpo ekintza bateratuzko programarik ez izateak, sakabanaketak eta antola-kuntzaren ahultasunak, eta gero eta handiagoak ziren desadostasun ideologikoak eta metodologikoak, horrek guztiak zatiketak eta urrun-tzeak areagotu zituen garai horretan. Begien bistakoak dira OTANen aurkako (1982-1986) kanpainarekiko parekotasunak; azken finean,

ekologistak eta antimilitaristak enbor amankomun berberetik zetozen: Komite Antinuklear eta Ekologistetatik.

1987an, uzte ugarien ondorioz nahiko murriztuta zeudela, Batzorde horiek «erakunde aterki» bat sortzea proposatu zuten, bere barruan ekologismoaren borrokarekiko konpromisoa zuten ahalik eta pertsona eta talde gehienak bilduko zituena, hori, beren ustez, euskal nazioa asartzeko mugimenduarekin bat egitea baitzen (Barcena, Ibarra eta Zubiaga, 1995:39-47). Organismo berri horrek, Eguzkik, gutxi iraun zuen ekologistak biltzen zituen proiektu amankomun gisa, eta bitan banatu zen 14 hilabetez elkarlanean aritu ondoren; parte-hartze horren iturri izan zen EKI. Gauzak horrela, 1980ko hamarkadaren bukaeran euskal ekologismoaren panoraman nazio mailako bi talde zeuden (Eki eta Eguzki), probintzia mailako zenbait (Bizkaiko Koordinadora, Anat-Lane, Arabako Federazioa,...) eta tokiko talde ugari, beren inguru hurbileko ingurugiro gaiak eta jarduera kontserbazionistak aurrera eramanez gehienetan (Gernikako Ekologia Tailerra, Amilotz, Mendia Bizirik, Izadi, Zumaia, Txingudi, Hagin, Asamblea Ecologista de Tierra Estella, Txomin Bedarra, Ingurune,...).

Leizarango Autobidearen gatazka, bere gailurra 90-92 urteetan izan zuena, bilakatu zen euskal ekologismoaren bigarren mobilizazio handia; bere bilakaeraren giltzek aditzera ematen dute denbora ez dela alferrik aurrera joan. Hasiera batean, Irurzun (Nafarroa) eta Andoain (Gipuzkoa) artean autobide bat egiteko proiektua ezagutarazi zenean, mugimendu ekologistak talde bateratu bat osatu zuen berriro, Leizarango arana babesteko Autobidearen Aurkako Koordinakundea; hori 1985ean izan zen. Baina lau urte geroago, eta komunikazio-bide berriari ezezko biribila ematen zion diskurtso antidesarrollista —Autobiarik ez— horren ordez, ibilbide alternatibo bat proposatzen zuen proiektua aurkeztu zen —Lurralde—, aranari kalterik egin gabe Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko errepidezko komunikabideak nola hobetu proposatzen zuen ikuspegi ekologiko eta zientifiko-teknikoa, azkenean, ibilbidearen aldaketa ekarriko zuen elkarrizketa bat abiaraztea exijituz.

Aukera politikorako egitura oso bestelakoa zen Lemoizen garaian zegoenarekin alderatuta eta hori argi eta garbi nabarmendu zen. Leizaranen mugimendu ekologistak ez zuen hamar urte lehenago eskura izan zuen bezain gizarte sare zabala izan. Autobidea ez zen jada Gobernu zentral urrun eta arrotz baten egitekoa, gobernuan urte askotako esperientzia zuen eta oso instituzionalizatuta zegoen euskal administrazio batena baizik: proiektu hura betearaz zezaketen, eta betearazi egin nahi zuten. Gainera, Ajuria-Eneako Hitzarmena indarrean zegoen garaia zen (1988), eta hitzarmen horrek uko egiten zion ENAMek parte hartzen zuen edozein erakundez kanpoko eskariri jaramon egiteari.

Bazterketa horren ondorioz, ENAMen inguruan hutsik eraikitako itun sistema batekin gelditu zen euskal mugimendu ekologista. Eta lanak hasi bezain laister ETAk burutu zituen ekintzek, bigarren mailan utzi zuten eztabaida ekologista. Irurtzun-Andoain Autobidearen gatazkak arazo ekologikoa izateari utzi zion, eta alde batetik abertzale moderatuak eta Espainiako Konstituzioak eraturako antolaketa autonomikoa defenditzen zutenen, eta bestetik esparru politiko hori gairatu nahi zutenen arteko gatazka politikoa izatera pasa zen. Ingurugiro kontuak alde bat utzi eta eduki politiko-demokratikoa bilakatu zen diskursoaren ardatza.

Leizarango Autobidearen aurkako kanpainaren balantzeak zapore gazi-geza utzi zion euskal mugimendu ekologistari. Mugimenduak bere antolakuntza egiturak eta komunikazio estrategiak hobetu zituen, mobilizazio jendetsuak eragiteko gai izan zen eta baita proiektuaren ibilbideari alternatiba tekniko bat emateko gai ere, baina ez zuen benetako edukirik lortu: ibilbidea aldatu baldin bazen ere eta Leizarango aranari kalte txikiagoa egin baldin bazitzaion ere, lanak azkenean burutu egin ziren. Bi bloke politikoen arteko botere-harremanek baldintzatu zuten azken emaitza, eta ez jendea biltzeko ahalmenak edota mugimenduaren arrazoiek.

Itoizko urtegiaren eraikuntzak jaso zuen Euskal Herrian ekologisten mobilizazioaren lekukoa. Oraingoan planteamenduak toki-kutsu handiagoa izan zuen eta bloke politikoen arteko borrokatik aldendu zen. Itoizko Koordinakundea, Nafarroan eragindako eremuko auzotarrak, zinegotziak eta ekologistak biltzen zituena, 1985ean eratu zen, «bere lurrraren defentsarako»

Hala ere, Nafarroako gobernu autonomikoak eta Madrileko gobernu zentralak ez dute inoiz Itoizko Koordinakundea solaskide gisa onartu eta uko egin diote inongo harreman edo elkarrizketa izateari, eta ezertan amore emateari. Hori dela eta, gizartea informatu eta mobilizatzeari gainera, zenbait administrazio eta lege prozesu abiarazi behar izan ditu Nafarroan, Madrilen eta Bruselan urtegia egitea eragozteko. Auzitegira jotzea zen mugimenduaren eskariei jaramon egiten ez zien botere instituzional guztiahalduna geldiarazteko azken baliabidea (Barcelona, 2000).

1995eko irailean, Itoizko urtegia baliogabea eta legez kontrakoa zela zioen ebazpena eman zuen Auzitegi Nazionalak, ingurugiroaren legeak urratzeagatik, legearen babesik ez izateagatik —lege berezi bat edota plangintza hidrológico bat ez izateagatik—, eta justifikazio ekonomikoa nahikoa ez izateagatik. 1996ko urtarrilean, Auzitegi Nazionalak 506 kotatik gora urez betetzea, zuhaitzak ebakitzea eta lurrak mugitzea debekatu zuen berriro, eta horrek 9 Hm² ur baino gehiago ezin bildu izatea esan nahi du, hau da, hasierako proiektuaren %2.

Proiektuaren arduradunek entzungor egin zieten epai horiei eta lanek aurrera jarraitu zuten. 1996ko apirilaren 6an Itoizko «Solidarioak» taldeak, indarkeriarik gabeko sabotaje-ekintza batean, urtegiko presa egiteko materiala hornitzen zuten dorreen kableak ebaki zituen eta ia urtebetez urtegiaren lanak geldiaraztea eta eztabaida politiko eta sozial zabala eragitea lortu zuen. 1995ean sortutako talde horrek «ekintzara pasatzea erabaki zuen, eta ekintza baketsu eta publikoen bidez lan horren irrazionaltasuna eta ilegaltasuna salatzea». Aipatutako sabotajeaz gainera, 1999. urtetik aurrera salaketa ekintzak burutu ditu Estrasburgon dagoen Europako Parlamentuaren aurrean, Londreseko Millenium Wheel-en, Berlineko Brandenburgokog Atean, Erromako San Pedroren Basilikan eta Hagako Urari buruzko II Munduko Konferentzian.

Internazionalizazio estrategia horrek berretsi egin du ez Nafarroan eta ez Madrilen ez dagoela negoziatorako esparrurik. Kontuan izan behar da, gainera, 2000ko martxoaren 14an Auzitegi Konstituzionalak emandako epaia, zeinaren bidez urpetu daitezkeen guneeen babesa ezabatzen zuen Ingurune Naturalak Babesteko legea berretsi baitzuen eta horrela Nafarroako Gobernuari Auzitegi Nazionalak ezarritako kotaren debekua gainditzeko eskubidea eman baitzion, horrek gainera Espainian zegoen helegite juridikoa blokeatu zuen eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegira jotzera behartu zuen mugimendua (Barcena, 2001).

Orain arte ez dugu Iparraldeko mugimendu ekologistari buruz ezer esan. Bere borroka ezagunenak Gas-Pars-ena, Lacq-etik Nafarroarako oleoduktoaren aurkakoa, urbanizazio turistiko, kirol-portu, golf eta autobideen aurkako kanpainak eta TGVren aurkako mobilizazioa izan dira. Iparraldeko erakunde eta mugimendu ekologistek ez dute Hegoaldekoekin ia batere harremanik izan. 1990eko abuztuan, zenbait talde ekologistak (Ortzadar, Pays Basque Ecologie, Ideal, ...) elkarlanerako eta koordinatzaile mekanismoak finkatzea erabaki zuten, informazioa partekatze, eraginkortasun handiagoa izateko eta estilo bateratuak eta elkarren arteko konfiantza sustatzeko. Pauso horren ondorioz «Collectif de Associations de Défense de l'Environnement» (CADE) jaio zen, Iparraldeko ekologismo soziala biltzen duen kolektiboa. Iparraldeko esparru politikoaren eta ingurugiroaren desberdintasun handi bat, gainera, 1990an Euskal Herriko Berdeak sortu izana da. EHBek autonomia lortu zuen Frantziako «Les Verts» federazioaren barruan. EHB diputatu bat izatera iritsi zen Akitaniako Lurralde Kontseiluan, Bordelen, eta Iparraldeko udaletan, berriz, hamar bat zinegotzi.

Hegoaldean, ordea, mugimendu ekologistaren zati handienari ez zaio egokia iruditu alderdi berdeen proiektuekin bat egitea; euskal ez-


kerraren esparruan aukera politiko desberdinak egoteak ateak ixten dizkie horrelako proiektuei. Bestalde, nazioarteko sare eta organizazio ekologista garrantzitsuenek eta ezagunenek ere (Greenpeace, WWF, Friends of the Earth, Bird Life,...) oihartzun txikia izan dute Euskal Herrian. Horrek, euskal ekologismoaren talde tradizionalen protagonismoa berretsiko luke.

Greenpeacek, esate baterako, ia 6.000 kide dituelarik Hegoaldean afiliatu gehien dituen erakundea den arren, eta euskal lurrian eta itsasertzean kanpaina ugari egin dituen arren —altzairutegietako hautsak inportatzearen aurka, arrantza tradizionalaren alde, Itoiz eta errausgai-luak...—, ez dauka bulego iraunkorrik eta duela oso gutxi hasi dira biltzen erakunde horretako kideak toki kanpainak antolatzen (Itoiz, energia elektrikoazko instalazioak, Bilboko Erraustegia,...) edota beren kanpaina orokorra zabaltzeko (elikagai transgenikoak,...), gehienetan euskal mugimendu ekologistaren taldeekin elkarlanean. WWF eta Amigos de la Tierra taldeei dagokienez, ez dute ia toki-presentzia publikorik.

Euskal mugimendu ekologista Europako mugimendu ekologistaren arazo berberei erantzuten saiatzen da, baina polarizazio politikoa oso handia den testuinguru batean. Mugimendu ekologista, industrializazioak eta modernizazio prozesuek naturan eta ingurugiroan eragin dituzten aldaketa handiei aurre egin nahi izan dien gizarte mugimendu berria dela esan ohi da. Euskal herrian, ekonomiari, teknologiari eta azpiegiturei dagozkien garapen dinamika berriei erantzuteko mugimendu hori, frankismoaren diktadura garaian diseinatu-tako nuklearizazio planei aurre eginez abiatu zen eta ingurugiroan duen jarduera-eremua zabalduz joan da, testuinguru politiko aldakor baten erdian.

Administrazio Publikoa izan ohi da gehienetan beren ingurugiroari buruzko protesten hartzaillea; 1987-1998 bitartean, protesta horien %71,8 administrazio erakundearen aurrean egin zen (TEA). Azpiegitura handiak dira tokiko, probintziako, erkidegoko edo estatuko agintariekin duten eten gabeko gatazkaren ardatz nagusia, gaur egun Itoizen, AHTaren inguruan, parke eolikoaren inguruan, Bilboko erraustegiaren inguruan eta gainerako energia proiektuen inguruan (Boroa, Bahia Bizkaia, IGCC-Petronor, Castejon...), kirol eta industria portuen inguruan edota Barakaldon lindaneren tratamendurako lantegiaren inguruan dauden istiluek agerian uzten duten bezala. Beraz, sortu zenetik gaur arte, sistema politiko-ekonomikoak bultzatzen dituen garapen planei aurre egiten dien eta plan horiek arbuizatzen dituen ekologismo gaitzesle baten aurrean gaude, eta horrek balio instituzionalak (hazkundera, lehiakortasuna, irudi berria, aldaketa teknologikoa eta demokrazia or-

dezkatzailea) eta euskal mugimendu ekologistak defenditzen dituenak (iraunkortasuna, zuzentasuna, osasuna, ekoizpen garbia eta demokrazia parte-hartzailea) aurrez aurre jartzen dituen ingurugiroaren kultura politiko gatazkatsua sortu du. Kultura politiko gatazkatsu hori irudikatzen du ondoko irudiak (Barcena, 1998).



2. Irudia

Ingurugiroaren kultura politiko gatazkatsua.

Tirabira horiek direla eta, erakundeak eta enpresak ingurugiroarekiko errespetuzko arrazoibideak eta ekimenak erabiltzen hasi dira. Ingurugiro politiken halako instituzionalizazio horrek hautsi egin du lehen talde ekologistek ekologiaren gainean zuten monopolioa. Testuinguru berri horretan, euskal mugimendu ekologistak malgutasunaren eta pragmatismoaren bidea aukeratu du bere eragina hobetzeko, eta bere azpiegiturak indartuz, giza baliabideak egonkortuz, baliabide mediatikoak eskuratuz eta lege prozedurek eta prozedura judizialek eskaintzen dizkieten aukerak erabiliz egin du hori. Horrek ez ditu erakundeekiko harremanak aldatu, baina beste egitura batzuk eta beste mobilizatzeoko era batzuk ekarri ditu.

Eta gure ustez horri dagokionez esan daiteke euskal mugimendu ekologistak «bere behartasun egoeratik atera duela indarra». Gaur egun, mugimendu hori dinamika mobilizatzaileak bultzatzeko eta proiektuak baldintzatzeko eta zalantzan jartzeko gai da, eta ez «berezko baliabideak ongi erabiltzen dituelako», lagun onak aurkitzen eta espazio mediatikoak betetzen jakin duelako baizik. Iritzi publikoaren aurrean eta bere jarraitzaile politikoaren aurrean arazoien eta guztion

ongizatearen defentsari gisa agertzea lortu du, erakundeen hermetikotasunaren eta itxikeriaren aurrean, osagai abertzaleak, lokalistak eta desarrollismoaren aurkakoak dituen arrazoibide bat erabiliz.

Bakearen aldeko mugimendua eta mugimendu antimilitarista

Aurreko mugimenduetan bezala, «bakearen aldeko mugimendua» esapidea, era askotako taldeak biltzen dituen saski-naskia dela esan genezake. Batzuk era guztietako gerren aurka daude eta indarkeriaren eta militarismoaren adierazpide guztiak borrokatzen dituzte (Euskal Herriko Kontzientzi Eragozpen Mugimendua bezalako talde antimilitaristak eta kristau kutsuko konpromisoa duten eta gehienetan beste talde batzuetan sakabanaturik dauden militanteak); aurrekoetatik gutxi edo aski hurbil dauden beste batzuek, militarismoaren atal zehatz batean biltzen dute beren jarduera (derrigorrezko soldadutzaren aurkako Euskadiko Kontzientzi Eragozleen Elkarte edota tokiko intsumisio taldeak, gastu militarren aurkako Eragozpen Fiskalaren Asanbladak, armak ekoiztu eta saltzearen aurkako Gasteizkoak taldea, Gerra Nuklearraren aurkako Medikiak,...); beste batzuek gauza asko dituzte aurrekoekin amankomunean, baina ez dira indarkeriaren aurka agertzen (Kakitzat, beste intsumisio talde batzuk, Malatxa,...); beste batzuek, azkenik, gerra jakinak salatzen dituzte (Herri Saharaiaren Adiskideak, SOS Balkanes, Chiapaseko Plataforma,...); eta, jakina, noizean behin, aurreko guztiak era batera edo bestera konbinatu eta behin behineko kanpainak eta koordinakundeak sor daitezke (Anti-OTAN Mobida, Bardeatako Poligonoaren Aurkako Asanblada, Golkoko Gerraren aurkako Koordinakunde,...). Horrez gainera gaur deituriko talde bakezaleak daude, beren zeregin nagusia euskal gatazka delarik (Gesto por la Paz-Bakearen Alde, Elkarri, Bakea Orain, Denon Artean...).

Aniztasun horrek, berez, mugimendu feministan eta ekologistan ikusi ditugun aurkakotasun ideologikoaren ardatz berberak islatzen ditu: nazioa, batetik, gehienetan indarkeria tresna politiko gisa erabiltzea justifikatzearen edota ez justifikatzearen bidez azaltzen dena, eta bakezaletasun liberala/bakezaletasun erradikala bestetik, alde batean egungo egitura instituzionalak berritzeko aukera badagoela eta gatazkak konpontzeko mekanismoak hobetu daitezkeela uste dutenak, eta bestean gizartean eta politikan jokabide berriak sortu ahal izateko egitura horiek ezabatzearen edo guztiz aldatzearen alde daudenak utziko lituzkeena.

Goiago aipatu diren beste bi mugimenduetan bezala, denboran atzera eginez gero, bakezaletasunaren eta antimilitarismoaren mundu

hau osatzen duten talde askoren enbor amankomuna aurkitzen da. Gaur egun euskal talde bakezaleen eta antimilitaristen artean zaharrena denaren, Kontzientzi Eragozpen Mugimenduaren printzipioak aztertuta iragan amankomun horren nahiko deskribapen ona egin daiteke: bakezaletasun erradikala, ez-biolentzia, asanblearismoa, aldaketa politiko sakon baten aldeko talde konpromisoa. Talde hori 1974an sortu zen kontzientzia eragozleak, ez-biolentziaren militanteak, kristau militanteak eta zenbait anarkista bildurik, eta harrez gero bakerako heziketa, ekintza zuzen ez-biolentoak —are sabotajea ere: Itoizeko «solidarioak» talde horretako militante zaharrek inbertitu ziren beren ekintzarako— gastu militarri buruzko ikerketa eta armen ekoizpenari eta salmentari buruzkoa, gerren eta indarkeria estrukturalaren salaketa, patriarkatua, militarismoa eta armadak, eta abar lantzen ditu. Nolanahi dela ere, beren lan esparru ezagunena kontzientzia eragozpena eta intsumisioa da, ordutik hona etenik gabe garatu den mobilizazioa, eta duen gaurkotatutako aurrerago berrikusiko duguna.

Euskal mugimendu bakezalearen eta antimilitaristaren kanpaina garrantzitsuen artean, Espainiako Estatuak OTANen jarraitzearen aurkako mobilizazioa nabarmen daiteke. Mobilizazio hori 1980ko hamarkadako lehen erdi aldean agenda politiko-sozialaren lehen mailan egon zen. 1979ko abenduan, OTANek Alemanian Federalean, Britainia Handian, Italian, Belgikan eta Holandan bere euromisil ospetsuak (Pershing II eta Cruise) zabaltzeko erabakia hartu zuen, Eki Europako herrialdeetakoek irismen ertaineko misil sobietarrak (SS-20) zabaltzeko zituztelako. Hori dela eta Mendebaldeko Europa osoan 2. Mundu Gerratik ezagutzen ziren gizarte mugimendu indartsuenak eta aktiboenak sortu ziren, jendea biltzeko ahalmenari, inpaktuari eta nazioarteko koordinazioari dagokienez. Euskal Herriko bakearen aldeko mugimenduak Europako bere kideekin bat egin zuen, base amerikarren aurka protestak eginez, eta aktiboki parte hartu zuen horretarako sortu ziren foroetan, European Nuclear Disarmament-en (END), esate baterako. Testuinguru hartan, 1982ko maiatzean zehazki, UCDren azken gobernuak, Calvo Sotelo buru zela, Espainia OTANen sartzea erabaki zuen, bakearen alde mobilizatzen bertako espazio bat sortuz.

Madriko agintariek inposatutako proiektu zibil nuklearraren aurka, hau da Lemoizko proiektuaren aurka zegoen euskal gizartearen, derri gor egon behar zuen OTANen sartzearen aurka, izan ere, neutraltasunaren amaiera suposatuko zuen eta Europak bizi zuen mehatxu militar nuklearra gure lurretaraino ekarriko zuen, eta gainera, berriro ere, Madrilin hartu zen erabakia. 1986ko martxoko erreferendumean argi eta garbi gelditu zen euskaldun gehienak OTANetik ateratzearen alde zuzena eta daudela: errolatutakoen %63,7ak bozkatu zuen, eta bozka-

tu zutenen artean %62,6ak ezezkoa eman zuen, eta %33,5ak baiezkoa. Hala ere, euskal mugimendu bakezale eta antimilitarista zabal eta irudimentsua ez zen Lemoizen aurkako manifestazioek izan zuten mobilizazio eta erakartze maila iristeko gai izan. Lau arrazoi aipa litezke hori azaltzeko. Bata, eraso nuklear posible baten ideia askoz zirriborrotsuagoa eta urrunagoa zen aldamenean eraikiko zuten zentral nuklearraren hurbiltasunaren aldean. Bi, bozketaren emaitza jakina zen: inkesten arabera biztanlegoaren %80 aurka zegoen; mobilizatzea ez zen beharrezkoa, Euskal Herriari zegokionez, behintzat. Hiru, aukera politikorako egitura ez zegoen oso alde: Euzko Alderdi Jeltzaleak, zuzendariak argi eta garbi atlantismoaren alde zeudela, baina gehiengoaren iritzia hertsatuta, erreferendumean abstenitzeko eskatu zuen azkenean.

Eta lau, OTANen aurkako euskal mugimendua hiru bloketan zatituta egon zen: Euskadiko Mobida Anti-Otan, anitza eta asanblearioa, Komite Antinuklear eta Ekologistek zein talde eta kolektibo antimilitaristen zerrenda luze batek bultzatua; Desarme eta Bakearen aldeko Euskal Kolektiboak, Euskadiko Ezkerraren, Euskadiko Alderdi Komunistaren eta Comisiones Obrerasen apoioa zutenak; eta azkenik, Euskadiren Subiranotasun Nazionalaren aldeko Manifestua, Herri Batasunaren Mahai Nazionalak bultzatua.

Bi sareetan iragan amankomuna eta elkarrekin egindako kanpainen historia zuten aktibista asko izanda —euskal lurraldeko instalazio militarrek ixtea (Jaizkibel, Belagua, Bardeak,...), esate baterako—, ez zen zaila izan talde antimilitaristek eta talde antinuklearrak eta ekologistek kanpaina bakarria egitea: Euskadiko Mobida Anti-OTAN. 1983ko udazkenean abiarazi zen, eta osatzen zuten taldeek OTANen aurkako plataforma amankomun eta bakarria osatzeko bitartekaritza eta esparru bateratzaile zabalak bultzatzen saiatu ziren. Hala ere, beste bi blokeetan parte hartzen zuten alderdiek zuten ustezko etekin elektoral baten itxaropenak, eta horrekin batera Mobidaren barruan zeuden sentsibiltate desberdinek zituzten aliantza hobeak zeintzuk ziren erabakitzeko ezinezkoa egin zuten espazio amankomun hori.

Alde batetik, HBren buruzagiek nahiago izan zuten beste jokorako eremu bat, nazioari lehentasuna ematen zion eta sobietarren aldekoztat jo zen arrazoibide bereizi batekin. Beste alde batetik, Euskadiko Ezkerrak, Euskadiko Alderdi Komunistak eta CCOO Desarme eta Bakearen aldeko Euskal Kolektiboekin bat egin zuten, bere ardatz nagusiak ez-biolentzia eta ETAREN arbuioa ziren erakunde bakezale batekin, komunikabideetan eta, oro har, erakundeen esparruan harrera hobea izango zuen espazio erreformista bat bilatuz. Geroago espazio horretan Gesto por la Paz–Bakearen Alde ekimena sortuko zen.

Hegoaldean izandako emaitza onak gorabehera, bakearen aldeko mugimenduak ezin izan zuen Espainiako Estatu osoan erreferenduma irabazi —Hegoaldean, Katalunian eta Kanariar Uharteetan emaitza hobekak lortu izanak abertzaletasunaren edota zentroaren eta periferiaren arteko desadostasunaren irakurketa bat egiteko bidea emango luke—, eta horrek mugimenduaren zati handi baten desmobilizazioa ekarri zuen.

Zenbait urte geroago, Pertsiar Golkon esku-hartze militarra gertatu zenean, euskal mugimendu bakezalea eta antimilitarista aspaldiko itunak berritzeko gai izan zen eta erantzun azkar eta sendoa antolatu zuen. Mobilizazio hori OTANen aurkako mobilizazioaren berritzea izan zela esan liteke, beti bezalako esku-hartzea baitzen hura: inperialista, interes ekonomikoek bultzatua eta Ameriketako Estatu Batuek zuzendua, eta Espainiako gobernuak, gainera, intsumisioaren prozesua bete-betean zegoela izugarritzko hanka-sartzea egin zuen soldaduak behartuta gerrara bidaliz. Balkanetako gerrak, ordea, askoz ekintza gutxiago piztu zuen, OTANen kanpainan edota Golkoko krisialdian parte hartu zuten sindikatu eta alderdi politiko handiak isilik gelditu ziren. Gatazka horrek oso krisi larria eragin zuen mugimenduaren baitan, eta baita, neurri txikiagoan izan baldin bazen ere, tradizio luzeagoa zuten talde antimilitaristetan. Bere militante gutxi batzuk parte hartu zuten soilik, eta beren kabuz, elkartasun eta salaketa ekimenetan, SOS-Balkanes-en edota Gerrarik Ez!-en, esate baterako. Hori dela eta, ekimen horiek, aurrekoen indarrak izan ez baldin bazuten ere, aniztasun ideologiko handiagoa izan zuten eta beste era bateko estilo bat bultzatu zuten (Ajangiz, 2000).

Kontzientzia eragozpena eta intsumisioa izan da euskal mugimendu bakezale eta antimilitaristaren beste mobilizazio garrantzitsua. OTANen aurkako kanpaina baino bizitz luzeagoa izan du eta bere eragina ere handiagoa izan da: hasiera batean ordezko zerbitzua zilegitasunik gabe utzi eta deuseztu egin zuen, ondoren kontzientzia eragozpena ikaragarri bultzatu zen, eta azkenik derrigorrezko soldadutza desagertarazi egin du. Inoiz ezta inon ez da hemengoaren tamaina, erradikaltasuna eta emaitzak izan dituen kanpainarik antolatu. Oso esperientzia berezia izan da, dudarik gabe.

1970eko hamarkadan hasi zen mobilizazioa kontzientzia eragozpena arautzeko lege bat eskatuz, baina 1980an azkenean PSOEn gobernuak aukera horri baietza eman zionean, mugimenduak derrigorrezko soldadutzari desobediencia zibila ezarriko ziola iragarri zuen, eta 1988an hasi zen hori gauzatzen. Desobediencia zibil horren lidergoa, hala ideologia mailan nola estrategikoan, Kontzientzi Eragozpen Mugimenduaren gain egon da beti; armadak eta militarismoa ezeztatu

tzeko eta benetan berdintasuna nagusi izango den gizarte bat sortzen laguntzeko ekintza zuzen ez-biolentoa erabili behar dela uste du talde horrek. Gainerako taldeak Kakitzat, AOC-EKEA eta Malatxa dira. Ezkerreko talde estraparlamentarioekin lotuta dagoen Kakitzat taldeak antolatzen du urtero «Intsumisio Eguna» eta gehienetan KEMekin aritzen da elkarlanean; AOC-EKEA kontzientzia eragozleei aholku emateko eta oro har defenditzeko elkartea da, baina, Kataluniako AOC ez bezala, ez dago intsumisioaren aurka eta ez du ordezeko zerbitzua egiteko postuak sortzen lagundu; eta Malatxak, KEMen eta Kakitzat-en lidergoari aurre egiteko ENAMEk sortutako taldeak, inoiz ez du bere mundutik kanpora ateratzerik izan. Gainera, intsumisioaren aldeko borroka apoiatu duten gazteen erakunde politikoak ere hemen sar litezke, neurri batean behintzat (Jarrai, EGI, Eusko Gazteriak, Hautsi,...). Iparraldean, jakina, antimilitarismoaren alderdi horren formulazioa guztiz bestelakoa izan da (Urteaga, 1998).

1989an abiatu zen intsumisioa, urte hartan intsumisoak 300 besterik izan ez baldin baziren ere. Hamar urte geroago, hogeita mila ziren intsumisoak. Hala ere, kopuru hori soldadutza egitera deitzen %1 baizik ez da, eta aldi berean, kontzientzia eragozle guztien %3. Oso alde handia dago, beraz, erkatuz gero: kopuruetan ez ezik erabilitako modu eta bitartekoetan datza bere indarra. Abaguneak ere garrantzia izan du ordezeko zerbitzua abiarazi baino lehen hasi zen intsumisioa, bere garpena arrisku larrian jarriz; ordezeko zerbitzuaren funtzionamendu normala blokeatzea izan da, azkenean, kontzientzia eragozpenaren zenbakiak gora jaso dituen eta matematikoki derrigorrezko soldadutzaren iraupena ezinezkoa egin duena. Gainera, Gobernuak konpondu nahi ez zuen, eta estrukturalki konpondu ere ezin zuen soldadutza ezeztatzeke eskari bat sartu zuen agenda politikoan eta mediatikoan. Berez, intsumisioa hasi zenetik hona, hala Euskadiko nola Espainiako alderdi politiko gehienen jarrera aldatu da.


Baina, dudarik gabe, desobedientzia zibil ez-biolento gisa formula-tzea izan da arrakasta horren giltza. Errepresioa eta espetxea bere protagonismoaren ardatz bihurtu ditu mugimenduak. Bere helburuaren zilegitasun soziala eta bitarteko ez-biolentoko erabiltzea Gobernu zapaltzailearen aurkako pizgarri politikoa izan da. Gobernua bera izan zen eskura zituen neurri guztiak erabili zituena intsumisoak espetxeratuak izan ez zitezen. Hori lortu zuela zirudienean, intsumisoek uko egin zioten hirugarren graduari eta horrek protagonismoa eman zion berriro gatazkari; gainera Iruñeko espetxean bildu ziren hainbat eta hainbat intsumisio, presondegi-sistema beraren aurkako salaketa bihurtu ziren. Eta inhabilitazioak ere ez zuen errepresio horrek eragindako eskandalu soziala leundu. Azkenean, etengabeko gatazkaren

ondorioz ezinezkoa izan da derrigorrezko soldadutza salbatzeko zati-kako erreformarik egitea.

Errepresioaren aurkako elkartasuna bere alde erabiliz, sektore politiko eta sozial handi batek soldadutza kentzeko indarra egin zezan lortu zuen. Bere «Soldadutza Ezeztatzekeko Manifestua» ekimenak, mugimenduaren eta alderdi politikoen arteko itun baten egitekoa bete zuen, eta horri esker instituzioetan entzun zitzaion, Euskadiko, Espainiako eta Europako parlamentuetan, esate baterako. Gainera, bere eraginez, euskal erakundeek ordezko zerbitzuaren sistema eta militarren erreklutamendua zabaltzeari ezezkua eman zioten; Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalen adierazpen instituzionalak ekar daitezke gogora, esate baterako, edota Eudima-ren sorrera, Udalbiltzaren egungo planteamendu soberanistaren aurrekaria izan zen erakundea. Lurralde bezalako mobilizazio ekologistekin ez bezala, edota mugimendu bakezale eta antimilitarista beraren lehenagoko mobilizazioekin ez bezala, euskal indar politiko guztiak bere alde egotea izan zen intsumisioaren alde ona. Jakina, laguntza handia izan da politika militarra oro har, eta soldadutza bereziki, gobernu zentralaren esku bakarrik egotea. Baina egia da, era berean, Ajuria Eneako Ituna nagusi zen testuinguru horretan ahobatasun hori posible izan dela protagonismoa eta lidergoa mugimenduak izan duelako, eta mugimenduak, une oro, bere independentziari eusten jakin duelako. Intsumisioak ez zuen garrantzi bera izango, ezta gutxiagorik ere, ENAMen mende egon izan balitz, esate baterako. Horregatik mugimenduaren berezko organizazioek inorena ez zen lurlean jardun behar izan dute, alde batean eta bestean egin behar izan dituzte itunak, eta ezinezko adostasunak bilatu behar izan dituzte. Horri esker, intsumisioa, euskaldun guztion lekua izan da.

Azkenean, soldadutzaren behin betiko krisia etorri zen. Sozialistek eta popularrek 1991. urtean hitzartu zuten Indar Armatuak 2000 eredua nahikoa ez zela ohartu ziren 1994an. Justizia Ministroak, Juan Alberto Bellochek «Estatu arazo»-tzat jo zuen egoera eta ordezko zerbitzuaren plan berezi batekin saiatu zen progresio horri aurre egiten. Baina beranduegi zen. Bi urte geroago, PPren gobernu berriak derrigorrezko soldadutzaren azkena iragarri zuen eta armada dezente bat osatzeko enplegudun soldaduak erreklutatzeari ekin zion presaka.

Trantsizio horrek ikaragarritzko eragozpenak izan ditu hemen, auzoko Frantzian ez bezala, non soldadutza ezeztatzea urteetako aldaketaren azken pausoa izan baita eta hori dela eta lehen mailako potentzia izatera iritsi baita Europan; guri dagokigunez, eragozpen horiek argi eta garbi adierazten dute mugimendua izan dela eta ez Gobernuak, derrigorrezko soldadutzaren azkena eragin duena (Ajangiz, 2001).



3. Irdia

Espainiako Estatuan soldadutza ezeztatzeko prozesua.

Euskal mugimendu antimilitaristak oso paper garrantzitsua jokatu du mobilizazio horretan, hala kualitatiboki nola kuantitatiboki. Euskal taldeek protagonismoa izan zuten kanpainaren diseinu estrategikoak eta desobediencia zibil horri ekiteko azken erabakia Orion hartu zen 1988ko abuztuan. Euskal intsumisoak, Espainiako Estatu osoko intsumisioen erdia baino gehiago izan dira, eta Estatu osoan mugimenduak izan dituen bitartekotza gehienak Euskal Herriko erakunde eta aktore politikoei eragin dituzte (Agirre Aranburu, Ajangiz, Ibarra *et al.*, 1998). Azken batean esan daiteke euskal mugimendu antimilitarista izan dela Espainiako Gobernu derrigorrezko soldadutza ezeztatzerantz bultzatu duen eragile nagusia, eta bere parte-hartzerik gabe ezeztatze hori ez zela gertatuko.

Euskal Herrian dagoen bakearen aldeko mugimenduaren best adierazpen bat, euskal gatazkaren ezaugarria den indarkeria politikoaren aurkako mobilizazioak dira. Goian ikusi dugunez, OTAnen aurkako mobilizazioetan batik bat, Euskal Herriko bakearen aldeko mugimenduaren barruan blokeak bereizi ziren, eta hor dute deituriko talde bakezale horiek beren jatorria. Banaketa horrek, bestalde, indarkeria politikoaz zer den azaltzeko bi modu islatzen ditu. Lehendabizikoek ez dute onartzen helburu politikoak iristeko indarkeria erabiltzea, etikoki eta politikoki zilegitasunik ez duela salatzen dute eta gatazka politikoak konpontzeko arau demokratikoak onartzea eta bitarteko baketsuak erabiltzea exijitzen dute; bigarrenek uste dute, Euskal Herriak bizi duen haustura eta liskar politiko soziala dela eta, alderdi guztien arteko elkarriketak eta negoziazioak lehentasuna izan behar duela indarkeriaren aurkako ekimenen gainetik.

Gesto por la Paz-Bakearen Alde Bilbon jaio zen 1985ean indarkeria politikoaren ondorioz gertatutako heriotza bakoitzeko protesta-kontzentrazio isila egiteko. Bere organizatzeko modua eta osatzen duen jendea mugimendu bakezale arruntek izan ohi dituenak dira. 100 tokiko talde, baino gehiago biltzen dituen koordinakundea da, asko eta asko Elizarekin lotura dutenak. Hala ere, 1988an Ajuria Eneako Itunari publikoki bere apoioa adierazi zionean jaso zuen komunikabideen eta erakundeen apoioari zor dio bere ospea eta Euskal Herri osora hain azkar zabaldu izana. Harrez gero elkarrizketarako eta gatazka konpontzeko gogoetak eta ikerketak batetik, eta beren deialdi eta mobilizazioetan izan ohi den erakundeen esparruko buruzagi politikoaren parte-hartze handia bateratzen saiatu dira. Horrek tirabira handiak sortu ditu beren bilakaeran eta barne egituraketan. Esate baterako, Bakea Orain eta Denon Artean Gesto por la Paz-etik bereizi ziren bere funtzionamendu politikoarekin eta antolakuntzazkoarekin bat ez zetozelako, erakundeek gehiago hurbildu nahi zitzaizkielako eta ETArekiko eta ENAMekiko diskurtso gogorragoa nahi zutelako.

1992an Elkarri jaio zen, gatazka egoera luze honetatik ateratzeko elkarrizketa eta adostasuna bultzatzeko bitartekari gisa protagonismo tekniko baten bila. Erakunde atipikoa da, gatazka konpontzeko aholkularitza espezializatuaren eta gizarte mugimenduaren arteko zerbait delako; militantzia zabala du, eta kide bakoitza bitartekaritzaren eta elkarrizketaren aktibista sozial bihurtzea bultzatzen du. Bere arrakasta nabarmenena, Lizarra-Garazi hitzarmena ahalbidetzea izan da, seguru asko.

Nolanahi dela ere, Gesto por la Paz-Bakearen Alde Koordinakundearen, Elkarriren, eta oro har, mugimendu bakezalearen barruan dauden taldeen garrantzia gatazkaren bi muturren arteko tarteko tokiak betetzea eta elkarrizketarako eta hitzarmenerako aukerak eskaintzea da.

Senideak-ek, Amnistiaren aldeko Gestorek, Gernika Batzordeak, Orereta Bake Taldeak, Herria 2000 Elizak edota Giza Eskubideen Aldeko Elkartek elkarrizketa multzo batean parte hartu zuten Elkarrirekin edota Gesto por la Paz-ekin batera, elkarrizketa zabalago bati bideak irekiz joateko. Baina, dudarik gabe, harreman esanguratsuena azken bi horien artekoa izan da. Gesto por la Paz-ek eta Elkarrik urteak daramatzate bat-etortze baten bila eta proposamen amankomunak landuz, oreka ez-egonkorrak aurkituz. Esate baterako euskal presoen sakabanaketaz ohartaraziz, edota zauriak sendatzeko gatazkaren biktimei ordaina ematea, nahitaezko pausoak direla aldarrikatuz. Eta, jakina, itun horrek, denboraren eraginak eta ETaren su-etenaren ondoren abiatutako prozesuaren porrotak gutxitu egin ditu bi kolektiboen ikuspegiaren arteko aldeak. Agian horregatik, eragindako polarizazio gero eta handiagoaren testuinguruan, euskal gatazkaren bi muturretan daudenek hain independenteak ez diren kolektiboen sorrera bultzatu dute, esate baterako, Euskal Herria Askatu! ENAMen esparruan eta Foro de Ermua eta Basta Ya! konstituzionalista esaten zaion blokearen inguruan.

Atal hau amaitzeko esan genezake instrumentaltasuna, erakartzeko ahalmena, batasun formala edota gobernuaren aurkako ekintza bezalako irizpide klasikoak gero eta gutxiago laguntzen dutela mugimendu pazifistaren eta antimilitaristaren moduak eta eraginak balioesten. Gaur egun mugimendu horrek parametro berezkoagoak eta identitarioak ditu: (a) mobilizazioaren kultura haren ordeztu —koiuntura egokia izan bezain laister mobilizazio zabala pizteko gutxieneko antolakuntza iraunkorra izatearen ordeztu— mugimenduaren kultura sortu du arlo desberdinetan eten gabe lan egiten duen sare zabal modura eratutako antolakuntza; (b) nahiago du bere agenda irismen luzeko eduki proaktiboen inguruan antolatu —bakerako heziketa, derrigorrezko soldadutzaren azkena, armen ekoizpena beste era batera bideratzea, gatazka belikoak, Euskal Herriaren bakea— Gobernuaren agendari erantzunez jardun baino; eta (c) autonomia eta independentzia handia izatera iritsi da alderdi politikoei dagokienez. Zentzu horretan, euskal mugimendu bakezalea eta antimilitarista European dauden izen pareko beste asko baino helduagoa da.

Solidaritate mugimendua

1960ko hamarkadaz geroztik nazioarteko solidaritate kanpaina ugari garatu dira Euskal Herrian (Ertamerikarekiko, Nikaragua sandinistarekiko batik bat, Sahararekiko, Hego Afrikarekiko, Irakekiko, Palestinarekiko,...) baina azken hamabost urteotan nagusiki, Espainiako Esta-

tuan, oro har, eta Euskal Herrian, bereziki, Gobernuz Kanpoko Erakundeak esaten zaien taldeen ikaragarritzko hazkundera izan da. Beren barne aniztasuna dela eta, oso zaila da sektore hori bere osotasunean gizarte mugimendu gisa izendatzea, baina, dudarik gabe, asko dira bere barruan gizarte mugimendu gisa egituratuta daudenak eta hala jokatzeko dutenak. Euskal Herriko Caritas horren adibidea litzateke. Baina adibide garbienak Garapen GKEak dira.

Elizaren misioetan aurki daitezke bere aurrekari urrunak, bere organizazioek —Caritasek berak—, pisu handia baitu oraindik sektore horretan. Baina 1970eko hamarkadatik aurrera, batez ere, Vietnameko gerrak eta Latinoamerikako gatazkek nazioarteko solidaritatearen inguruko sentsibilitate berri bat eratzeko lagundu zuten, eta hori dela eta, garapenari ematen zitzaion laguntza gero eta gehiago sekularizatu zen. Lanerako brigadek eta solidaritate batzordeek, euskal GGKE askoren eraketa ekarri zuten 1980ko hamarkadan (Hirugarren Mundua eta Bakea, Mugarik Gabe, Fondo Vasco de Cooperación, Hegoa,...), garai hartan mundu hori osatzen zuten Estatu mailako erakunde handiekin batuz (Cruz Roja, Cáritas, Médicus Mundi, Manos Unidas,...). Gero, 1990eko hamarkadan sektore horretan gertatu den espekulazioaren lekuko izan gara: kooperaziorako eta garapenerako proiektuei gobernuek ematen dizkieten laguntzen deialdiek —Eusko Jaurlaritzaren lehen deialdia 1988an izan zen—, askoz organizazio gehiago sortzea bultzatu du, tokikoak gehienak.

Gaur egun 231 Garapen GKE daude guztira Euskal Herrian, Estatu mailako eta Nazioarteko erakundeen ordezkariak barne. Ia gehienek (%90) garapenerako kooperazio proiektuak garatzen dituzte finantzaketa-iturri publikoekin, eta bi herenek kooperanteak bidaltzen dituzte hirugarren herrialdeetara. Oso egituratuta edota instituzionalizatuta dagoen sektore bat da, beraz. Hala ere mugimendu gisa bere nortasuna galdu ez duen sektorea da: bolondresak eta kooperanteak osatzen dute bere egituren %95a, erakundeen %98 biztanlearen sentsibilizazioaz arduratzen da, bi herenek presio sare eta taldeetan parte hartzen dute (Murguialday, Río, Anitua *et al.*, 2000) eta erdiak gizarte mugimendu baten partaide gisa aurkezten du bere burua. Baina noizean behin antolatzen dituzten salaketa kanpaina eta mobilizazioak dira gizarte-mugimendu izaera hori ondoen definitzen dutenak.

Garapen GKEen lehen kanpaina handia, %0,7aren kanpaina izan zen. Justicia y Paz erakundeak abiarazi zuen 1981ean, 1984an hasi ziren Euskal Herriko kristau kutsuko GGKEak eskari hori egiten, eta lau urte geroago, Hirugarren Munduaren Garapenerako Euskadiko Koordinakunde sortu berriaren lehen mobilizazio garrantzitsua izan zen. 45.000 izenpe baino gehiago bildu zituen Koordinakundeak eta koo-

perazio proiektuetan aurrekontuen %0,7a erabiltzea eskatu zieten euskal erakundeei. Estatuko gainerako lekuetan ez bezala, hemen kanpainak emaitzak izan zituen. Urte horretan bertan, Gasteizko Udalak printzipio hori onartu zuen eta Eusko Legebiltzarrak oso partida garrantzitsua onetsi zuen kooperazio proiektuetarako. Hurrengo urtetik aurrera, gainera, Koordinakundeak laguntza horiek emateko irizpideak definitzen lagundu zuen.

Hala ere, beti egon dira tirabirak Koordinakundearen eta gobernu erakundeen arteko harremanetan. Alde batetik, beren finantza iturria ia erabat fondo publikoen mende dagoelarik, badirudi organizazio horiek botere publikoekin mendekotasun harremanak izatera behartuta daudela, eta baita diru laguntzak ematerakoan eta hitzarmenak izenpetzerakoan nagusi den kidesotasun alderdikoen arabeko kuota banaketa onartzera ere. Gobernuek, bestalde, beren kanpo harremanetarako politikaren eta beren merkataritza balantzaren zati gisa ikusten dituzte kooperazio proiektuak. Urrutirago joan gabe, Hirugarren Mundua eta Bakea bost urtez gelditu zen Eusko Jaurlaritzaren diru-banaketatik kanpo, garapenerako fondoek kudeaketan gardentasuna eskatzen zuten kanpaina bat aurrera eraman zuelako.

Estatu osoan arrunta den erakundeen jokabide hori dela eta, 1994an %0,7ren kanpaina bultzatu zen berriro. Diru laguntzak honako irizpide hauen arabera ematea exijitu zuen orduan Koordinakundeak: (a) pobretasunaren eta bere kausa estrukturalen aurkako borroka egitea, (b) merkataritza interesekin zerikusirik ez izatea, (c) demokrazia, partaidetza eta giza eskubideekiko, emakumearen paperarekiko eta garapen iraunkorrarekiko errespetua; (d) destentralizazioa eta (e) iritzi publikoaren sentsibilizazioa. Kanpaina haren ondorioz abiarazi zen 1998an kanpo zorra barkatzeko egungo kanpaina, «kanpo zorra, betiko zorra?».

Solidaritate mugimenduaren tinkotasun handiago horrekin batera bi estrategia garatu ditu bere autonomia eta eragin ahalmena areagotzeko. Batetik, finantzaketa iturriak ugaritzea, esate baterako Europako Batasunera joz. Eta bestetik, Koordinakundearen ordezkariak papera indartzea, bera delarik orain programei laguntzak emateko irizpideetan eta emandako fondoek ebaluaketan eta kontrolean gardentasuna exijitzen duena. Estrategia hori emaitzak ematen ari da eta 1999tik aurrera prozeduran objektibotasun handiagoa izatera behartu du. Koordinakundearen prozesu horretan parte hartzen hasi da berriro.

Beraz, sektore horren birpolitizazioaz edota bere mugimendu-izae-raren sakontze batez hitz egin dezakegu. Azken aldian Koordinakundeak jokabide-arautegi bat onartu du, zeinaren bidez osatzen duten talde guztiek pobretasuna erazteko lan egiteko, kooperazioa berdinen arte-

ko elkartruke gisa ulertzeko, gizarte ehuna sortzen laguntzeko betiere herri hartzaileek proposatutako ekimenetatik abiatzeko, herritarrek parte hartzeko bideak sortzeko eta beren lanaren gardentasuna, zintzotasuna eta independentzia ziurtatzeko mekanismo formalak eratzeko konpromisoa hartu baitute. Gainera, bere diskurtso bakezale eta armamentismoaren aurkako gero eta ozenagoa da. Gaur egun koordinakunde hau gastu militarra eta armen salerosketa salatzen kanpaina bat prestatzen ari da «bakearen dibidendua» izenburupean. Solidaritatearen aktibista asko eta asko mugimendu bakezaleetatik datoz, eta lotura hori nabarmena da. Berez, beldurrik gabe esan genezake solidaritate mugimendua lehen aipatutako beste gizarte mugimenduetako aktibistez hornitzen dela gehienetan.

Azken gogoeta: gizarte mugimendu berriek Euskal Herrian bultzatu dituzten aldaketen inguruan

Gizarte mugimendu berriek politika «egiteko» modu berri bat eka-ri dute industri gizarte aurreratuetako sistema politikoetara. Betiko interes taldeekin eta alderdi politikoekin lehian, batzuetan alderdi politiko berriak edota hauteskundeetako alternatiba berriak osatuz (berdeak, feministak, zerrenda alternatiboak,...), beren gaiak eta agendak politikarien eta erakundeen mahai gainean lehen mailan egotea lortu dute gizarte mugimendu berriek. Beste kontu bat da, eta zailagoa, beren abenturan zein neurritarainoko arrakasta izan duten, edota, bestela esanda, zer nolako sakontasuna iritsi duten euskal gizartean gizarte mugimendu berriek bultzatutako aldaketa-proposamen horiek.

Euskal Herriari dagokionez, zehazki, eragin batzuk nabarmenak dira: euskal lurra nuklearizatzeko politiken porrota, politikarien eta komunikabideen agendetan genero kuestioak etengabe azaltzea, edota derrigorrezko soldadutza ezabatzea. Beste batzuk zailagoak dira hautesmaten: balioen eta jarreraren aldaketa, sozialki eta politikoki gaituz joateko prozesuak, ekintza kolektiboetarako modu berriak, diskurtso eta pentsaera berriak, eta abar. Ondoko koadroan ikus daitekeenez, asko dira mugimenduen jarduerak izan ditzakeen eraginak eta ondorioak. Hori egiaztatzea eta neurtzea ez da, gainera, beti erraza izaten; aitzitik, mugimenduaren ekintzaren eta gero hautesmaten diren fenomenoaren arteko kausalitatea edota kausa-ondorio harremana frogatzea oso zaila da eta diseinu metodologiko sendoa duten ikerketak egitea exijitzen du. Horrelako ikerketarik ezean, dena den, oinarri hipotetikoa duten azalpenak ematen saia gaitzake, eta gogoeta horiek zabaltzen. Gure ekintza kolektiboaren ondorioez gogoeta egitea osasuntsua izateaz gai-

| | | | | |
|--------------------|-----------------------|---|---|---|
| Barne ondorioak | Mugimendua | Egitura sistemikoa | Aliantzien egitura Gatazkaren egitura | |
| | | Laguntzak | Eliteen eskurapena | |
| Erakundea | Nortasun kolektiboa | | Elkartasuna eta kohesioa Koherentzia ideologikoa | |
| | | Tamaina | Kideak, zaleak Talde sareak | |
| | Egitura organizatiboa | | Koordinazioa, antolaketa Egitura kudeatzailea Ekintzarako egitura | |
| | | Kideak | Mozkinak | Materialak Inmaterialak: Asebetetzea |
| | | | Biografia | Sozializazio politikoa |
| | Kanpo ondorioak | Agintariak | Eskariaren sarrera | Reaktiboa Proaktiboa |
| | | | Prozedurazkoa | Sarrera <i>ad hoc</i> (kontsulta) Agenda instituzionalean Onarpen normatiboa Ejekuzio normatiboa |
| Sustantiboa | | Emaitzak | | |
| Egituran | | Sarrera iraunkorra Erabaki guneak, irizpideak eta arauak Errejimen politikoa Eskubide zibil eta politikoak | | |
| Eragile politikoak | | Agenda sistemikoa | | Politikoa Hedabideena Gizartea, mugimenduak |
| | | | Egiturak | Birlerrokatze Eragile berriak Lehentasun programatikoak |
| | | Sinbolikoa | Marko interpretatiboak | |
| | | Ekintza eta erakundeak | | Errepertorio eta estrategia Expansión de oportunidades |
| | | | Gizartea | Aldaketa kulturala |
| Aldaketa politikoa | | Partehartzea Autogestioa Behetik gorako kontrola | | |
| | | Aldaketa materiala | | Mozkin birbanatzaileak |

4. irudia

Gizarte mugimenduen eraginaren taxonomia.

nera, behar beharrezkoa da aurrera egin ahal izateko. Mugimendu edo mobilizazio zehatz bat aukeratu, bolaluma eskuan hartu, zerrenda hori berrikusi eta bere aurkikuntzak aktibismoko lagun eta adiskideekin eztabaidatzeko gonbidapena egiten diegu irakurleei.

Zirriborro gisa, lehendabizi esan genezake azken 25 urteotan Euskal Herrian protesta maila oso handia izan dela, inguruan ditugun gizarteetako batez bestekoa baino askoz handiagoa. Horrez gainera, era bateko eta besteko interesen defentsarako dagoen gizarte elkartzeta eta antolakuntza maila nabarmena kontuan hartzen baldin badugu, eta erakundeek politikaz egiten duten formulazioaz bestelakoak diren balio alternatiboek duten zabalkundea ikusita, euskal gizartea mugimenduan dagoen gizartea dela esan genezake, are gehiago, gizarte mugimenduen gizartea dela (Meyer eta Tarrow, 1998).

Mendebaldeko gizarte guztietan gertatu den herri antolakuntzaren fenomeno horrek Euskal Herrian izan duen bilakaera askoz ikusgarriagoa izan da, eta hori dela eta gizarte zibil anitz eta dinamikoa sortu da, erakunde politikoekin, tokikoetatik hasi eta orokorrenetaraino, etengabeko eztabaidan murgildua, eta ezker alternatiboaren berdintasun eta askatasun balioak, batez beste, presentzia handiagoa dutela. Horrek zerikusi garbia du ekintza kolektiborako modu berriak sortzeko politikoki, ekonomikoki eta kulturalki egokia den testuinguru estruktural bat izatearekin, testuinguru egoki hori bi tirabira garrantzitsuen gurutzaketaren ondorio delarik: zentroaren eta periferiaren arteko tentsioarena eta materialismoaren eta posmaterialismoaren artekoarena.

Lehendabizi, Espainiako erreforma politikoak aldaketa sozialaren eta politikoaren itzaropena zapuztu izana eta erresistentziatzeko, errepresioaren aurkako eta solidaritatezko kultura baten iraupena, ezker erradikal eta abertzalearen gizarte sareek sendotuta, gizarte mugimendu berrien diskurtsoa, balioak eta antolakuntza-egiturak garatzeko lur emankorra izan dira. Eta bigarren, azken bi hamarkadetan Euskadiko eta Nafarroako sistema politikoaren ezaugarriak izan diren alderdianiztasuna eta egonkortasun-eza, eta hautesleak abertzale eta zentralista, batetik, ezkerreko eta eskuineko, bestetik, bereizten dituen polarizazio maila handia dela eta, politikan parte hartzeko ohiko bideek izen txarra dute belaunaldi gazteen artean, demokrazia ordezkatzailak, batik bat.

Politikan parte hartzeko modu alternatiboak bilatzearen aldekoa den testuinguru horrek —joko politikoaren eremu tradizionala defenditzen duten gobernu erakundeak eta alderdiak aurka egonik, gehiengutan—, euskal gizarte mugimendu berrien mobilizazio etengabe eta ziklikoa bultzatu du, talde horien dinamikaren eta antolakuntzaren ezaugarriak asanblearioak, horizontalak eta partaidetzazkoak izatea di-

relarik. Halako kutsu anti-instituzionalista duen alternatibotasun hori, partaidetzazko demokraziaren proposamen koherentea baizik ez da.

la 30 urtez mobilizazio kulturala, soziala eta politikoa eginez, euskal gizarte mugimendu berriek antolakuntza sare zabalak ehundu dituzte, diskurtsoak eta jakiteak sortu dituzte, ekintzarako bitartekoei buruzko esperientzia bildu dute eta politikaren eta komunikabideen eremuetan moldatzen ikasi dute; ekintzen berrikuntza eta ikusgarritasuna horretarako baliabideak baizik ez dira. Hizkuntza berreskuratzea, naturarekiko errespetua, sexuen arteko berdintasuna, militarismoaren gaitzespena edota bakea, guztien onespina duten ideia-multzoa osatzen dute, eta mugimendu batzuen eta besteen arteko aktibisten, jokaeren eta proposamenen joan-etorria ohikoa da. Zailxeagoa gertatzen da feminismoak, antimilitarismoak, bakezaletasunak, ekologismoak edota solidaritate-mugimenduak ekarritako balio berri horiek islatuko lituzketen jokabide-aldaketak eta kode sozial, legal eta arau-emaielen aldaketak hautematea. Jokabide berriak garatu diren arren eta gizartearen eskari horiei erantzuteko lege berriak egin diren arren, bide luzea dago oraindik egiteko.

Ukaezina da, hala ere, gizarte mugimendu berri horiek gure geografia politikoan eta sozialean indarra hartu dutenik. Herri honen historiaren zenbait orrialde idatzi dituzte, baina ez hori bakarrik, gaur egun pentsaezina litzateke mugimendu horiek gabeko Euskal Herririk. Gainera, aipatu diren tirabira, krisialdi, desadostasun eta berrelkartzeak gorabehera, edota agian beraiei esker, heldutasun bikaina iritsi dute gizarte mugimendu berriek: hogeita hamar urteko esperientzia dute. Hor dago beren ondarea. Kultur ekoizpenaz eta organizazioaren bilbeaz gainera, Sztompkak aipatzen dituen birbanaketa prozesuetara daramaten aldaketa batzuk nabarmentzen ari dira. Zenbait arlotan, ingurugiroaren eremuan, esate baterako, informazioa eta kontsulta etengabeak dira; beste batzuetan, beste herrialde batzuekiko solidaritatearen arloan, badirudi nazioarteko beste harreman-eredu baterantz goazela pixkanaka.

Administrazio publikoek gehiago erantzun beharra edota kontu garbiagoak eman beharra ere aurrerapen handia da. Hala eskuineko nola ezkerreko gobernuek eta alderdi politikoek gizarte mugimendu berriek aurrean jarritako gatazketan abiatuta eratu diren agendei erantzun behar izan diete, eta hori ere politika egiteko beste era bat da, *contentious politics* esan izan zaiona. Administrazioek sail bereziak sortu behar izan dituzte (Ingurugiroa, Euskara, Emakumea, eta abar) politika publiko berri horiek ere abiarazteko eta hautesleei eta iritzi publikoari erakusteko gizarte mugimenduek plazaratu dituzten arazo eta kuestioekiko konpromisoa hartzen dutela. Hala ere, herritarrek galde-

tzeko eta parte hartzeko espazio gutxi dago oraindik eta erabakietan eta kudeaketan zuzenean parte hartzeko aukerak urriak dira. Agian horregatik, gizarte mugimenduek sarritan egiten dituzte oraindik protestak eta mobilizazioak.

Agian arrazoi horrexegatik beragatik, edota agian gizarte mugimenduentzat beren independentziari eustea oso garrantzitsua delako, erakundeek pixkanaka gizarte mugimendu berrien diskurtsoa eta gaitzerrenda bereganatu izanak ez du azken hauen aktibisten ko-optazioa ekarri, eta ezta, zentzu sistemikoan, organizazio horien integrazioa edo instituzionalizazioa ere. Edota, gutxienez, beste esparru batzuetan baino askoz neurri txikiagoan gertatu da. Milurteko berri honen hasieran euskal gizarte mugimendu berriak oso bestelakoak dira frankismo berandukoekin alderatuta, aurrerapauso handia egin dute. Adibidez, beren organizazioak autonomoak dira orain eta ez dute, garai hartan bezala, ezker abertzale edota erradikalaren «babesik», ENAMen «mugimenduen familian» zuzenean integratuta ez daudenek ez, behintzat. Bestalde, beren buruak finantzatzera iritsi dira neurri handi batean, eta horri esker ez dute erakundeekiko mendekotasun harremanik izan beharrik. Iritzi publikoak, komunikabideek eta erakundeek baliozko solaskidetzat hartu izanari zor zaio, antza denez, berriki izan duten instituzionalizazioa.

Amaitzeko esan genezake, euskal gizartean balio demokratikoak zabaltzeko akuilu izan direla euskal gizarte mugimendu berriak; beren partaidetzazko kultura, eta beren desobediencia zibilaren jokaera, el-karrizketaren, herriaren subiranotasunaren, tolerantziaren eta gutxiengoekiko errespetuaren kultura indartzeko balio izan dute, eta horrek demokrazia sakontzen lagundu du. Gurean bezala autodeterminazio pertsonalaren eta kolektiboaren eskaria hain bizirik dagoen herri batean, gizarte mugimendu sare usu bat izatea oso kapital sozial eta politiko garrantzitsua da, eta etorkizunari, egunerokotasun setati honek eskaintzen digun baino askoz itxaropen handiagoz begiratzeko aukera ematen digu.

Bibliografia

- AEK (1997): «Euskal Herria Korrika». 17 urte 10 pausotan. Euskaldunon Egunkaria. Bilbo.
- AGIRRE & IBARRA & AJANGUIZ & SAINZ DE ROZAS (1998): «La insumisión. Un singular ciclo histórico de desobediencia civil» Tecnos, Madrid.
- AGIRREBALTZATEGI, Paulo (1995): «Euskararen aldeko gizarte-mugimendua (EGM): Zeregina eta artikulazioa». *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 16. Donostia.

- AGIRREBALTZATEGI, Paulo (1999): «Euskararen aldeko gizarte-mugimendua eta EKB. Azken 25 urteak begiraturaz». *Bat Soziolinguistika aldizkaria*. 31. Donostia.
- AGOTE, Imanol (1995): «Euskararen aldeko mugimendu soziala». *Bat Soziolinguistika aldizkaria*. N.º 16. Donostia.
- AJANGIZ, Rafael (2000): «Política militar y movimientos sociales: El fin de la conscripción en Europa». Tesis Doctoral- UPV-EHU.
- AJANGIZ, Rafael (2001): «Política militar y movimientos sociales: el fin de la conscripción en Europa». Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- AJANGIZ, Rafael, MANZANOS, César y PASCUL, Jakue (1991): «Objetos, insumisos. La juventud vasca ante la mili y el ejército». Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Gasteiz.
- ALABART, Anna (1998): «Els moviments socials a Catalunya». CAMINAL & MATAS (arg.): «El sistema polític de Catalunya» Tecnos/Ed.Univ. Barcelona/ S.P. Univ. Autònoma Barcelona .
- ALBERICH, Tomas (1993): «La crisis de los movimientos sociales y el asociacionismo de los años noventa». Documentación Social 90: 101-113.
- ALONSO, Luis Enrique (1991): «Los nuevos movimientos sociales y el hecho diferencial español: una interpretación». José Vidal-Beneyto (arg.) *España a debate (II): La sociedad*, pp. 71-98. Tecnos, Madrid.
- ANDRES, Juanjo de & MAISUETXE, Jose Antonio (1980): «El movimiento ciudadano en Euskadi» . Txertoa, Donostia.
- ARRIZABALAGA, Jexux (1997): «Autonomoekin solasean». Txalaparta, Tafalla.
- ASAMBLEAS DE MUJERES DE EUSKADI Y AIZAN (1986): «Euskadiko Emakumeen II.To-paketak/II Jornadas Feministas de Euskadi». Autoedizioa, Bilbo.
- BARCENA, I. (Koord) (1998): «Bilbo Nora zoaz? Es sostenible nuestro modelo de ciudad. Reflexiones para un Atlas Medioambiental del Gran Bilbao». Eki, Erreka, Bakeaz. Bilbo.
- BARCENA & IBARRA & ZUBIAGA (1998): «Movimientos sociales y Democracia en Euskadi: Insumisión y ecologismo». IBARRA & TEJERINA (arg.): «Los movimientos sociales. Transformaciones políticas y cambio cultural» Trotta, Madrid.
- BARCENA, I. & IBARRA, P. & ZUBIAGA, M. (1995): «Nacionalismo y Ecología. Conflicto e institucionalización en el movimiento ecologista vasco». Libros de la Catarata. Madrid.
- BARCENA, I. & IBARRA, P. (2001): «The Itoiz Reservoir in the Basque Country: A local conflict becoming international?». ECPR, Grenoble.
- BARRIOCANAL, Alizia y ZALDUA, Iban (eds.) (1997): «Militarismoa eta antimilitarismoa: iragana, oraina, erronkak». Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- BECK, Ulrich (1998): «La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad». Paidós, Bartzelona.
- BENEDICTO, J. & REINARES, F. (1994): «Las transformaciones de lo político». Alianza. Madrid.
- CALLE, Angel (2000): «Ciudadanía y solidaridad: las ONG de Solidaridad Internacional como movimiento social». IEPALA, Madrid.
- CAMINAL, Miquel (arg.) (1999): *Manual de Ciencia Política*. Tecnos, Madrid.
- CASADO DA ROCHA, A. & PEREZ, J.A. (1996): «ITOIZ: Del Deber de la Desobediencia al Ecosabotaje. Pamiela». Pamplona.

- CASQUETTE, Jesús (1998): «Política, cultura y movimientos sociales». Bakeaz, Bilbao.
- CASSAN, Patrick (1996): «Francia y la cuestión nacional vasca». Txalaparta. Tafalla.
- CASTELLS, Manuel (1986): «La ciudad y las masas: sociología de los movimientos sociales urbanos». Alianza, Madrid.
- CASTELLS, Manuel (1998): «La Era de la Información: Economía, Sociedad y Cultura». Vol. II: El poder de la identidad. Alianza, Madrid.
- COORDINADORA DE ORGANIZACIONES FEMINISTAS DE EUSKADI (1996): «Euskadiko III. Ihardunaldi Feministak/III Jornadas Feministas de Euskadi. Mugarik ez emakumeentzat!!». Autoedición, Bilbao.
- DALTON, R.J. & KUECHLER, M. (arg.): *Los nuevos movimientos sociales: un reto al orden político*. Edicions Alfonso el Magnànim. Valentzia.
- DIANI, Mario (1992): «The concept of Social Movement». *The Sociological Review*. N.º 38.
- DURAN MUÑOZ, Rafael (1995): «La literatura sobre los nuevos movimientos sociales. Una revisión». *Revista de Estudios Políticos* 89: 369-401.
- EDER, Klaus (1996): «The Social Construction of Nature». Sage, Londres.
- EGUZKI (1987): «Lemoniz 1972-198...» autoedición. Bilbao.
- ELIZONDO, Arantxa & MARTINEZ, Eva (1995): «Presencia de mujeres y políticas para la igualdad entre los sexos: el caso de las Instituciones políticas Vascas (1980-1994)» *Revista de Estudios Políticos* 89. 345-368.
- ELSTER, John (1991): «El cemento de la sociedad». *Paradojas del orden social*. Gedisa, Bartzelona.
- EYERMAN, Ron & JAMISON, Andrew (1991): *Social Movements. A Cognitive Approach*. Polity Press.
- FERNANDEZ, Joaquín (1999): «El ecologismo español». Alianza Editorial, Madrid.
- FRANKEL, Boris (1989): «Los utópicos postindustriales». Edicions Alfons el Magnànim, Valentzia.
- FUNES RIVAS, M.^a Jesús (1998): «La salida del silencio. Movilizaciones por la paz en Euskadi 1986-1998». Akal, Madrid.
- GAMSON, William A. (1990): «The Strategy of Social Protest». Wadsworth Pub. Co., Belmont.
- GAMSON, William A. (1992): «Talking Politics». Cambridge University Press, Cambridge.
- GARCIA DE LA CRUZ, Juan José (1990): «Los nuevos movimientos sociales». Salvador Giner (arg.) *España, Sociedad y Política*, 593-612. Espasa-Calpe, Madrid.
- GELB, Joyce (1992): «Feminismo y acción política». Russell J. Dalton & Manfred Kuechler (arg.) «Los nuevos movimientos sociales: Un reto al orden político», 193-217. Alfons el Magnànim, Valentzia.
- GIUGNI, Marco & McADAM, Doug & TILLY, Charles (arg.) (1999): «How Social Movements Matter. Theoretical and Comparative Studies on the Consequences of Social Movements». University of Minnesota Press, Minneapolis.
- GIUGNI, Marco (1998): «Was It Worth the Effort? The Outcomes and Consequences of Social Movements». *Annual Review of Sociology* 24: 371-393.

- GRAU, Elena & IBARRA, Pedro (arg.) (2000): «Una mirada sobre la red. Anuario movimientos sociales». Gakoa-Icaria, Bartzelona.
- GUILLEM, Juan Manuel (1994): «Los movimientos sociales en las sociedades industriales». Eudema, Madrid.
- IBARRA, Pedro & LETAMENDIA, Francisco (2000): «Los movimientos sociales»: 372-401. CAMINAL, Miquel (arg.) (1999): «Manual de Ciencia Política». Tecnos, Madrid.
- IBARRA, Pedro & TEJERINA, Benjamín (arg.) (1998): «Los movimientos sociales. Transformaciones políticas y cambio cultural». Trotta, Madrid.
- IBARRA, Pedro (1995): «Nuevas formas de comportamiento político: los nuevos movimientos sociales». Inguruak 13: 39-60.
- IBARRA, Pedro (2000): «Los estudios sobre los movimientos sociales: estado de la cuestión». *Revista Española de Ciencia Política* 1(2): 271-290.
- IBARRA, Pedro (arg.) (1992): «Objeción e insumisión, claves ideológicas y sociales». Fundamentos, Madrid.
- INGLEHART, Ronald (1991): «El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas». Siglo XXI, Madrid.
- J. ZUMALABE FUNDAZIOA (1999): «Euskal Herriko Herri Mugimenduaren Gida» Arabera, Gasteiz.
- JACOB, James E, (1998): «Hills of Conflict. Basque Nationalism in France» University of Nevada. Reno
- KLANDERMANS, Bert (1997): «The Social Psychology of Protest». Blackwell, Cambridge.
- KRIESI, Hanspeter (1992): «El contexto político de los nuevos movimientos sociales en Europa Occidental». Jorge Benedicto & Fernando Reinares (arg.): «Las transformaciones de lo político». 115-157. Alianza Editorial, Madrid.
- LARAÑA, Enrique & GUSFIELD, Joseph (arg.) (1994): «Los Nuevos Movimientos Sociales: de la ideología a la identidad». CIS, Madrid.
- LARAÑA, Enrique (1999): «La construcción de los movimientos sociales». Alianza, Madrid.
- MCADAM, Doug (1982): «Political Process and the Development of Black Insurgency», 1930-1979. The University of Chicago Press, Chicago.
- MCADAM, Doug & MCCARTHY, John D. & ZALD, Mayer N. (arg.) (1999): «Perspectivas comparadas: oportunidades políticas, estructuras de movilización y marcos interpretativos culturales». Istmo, Madrid.
- MELUCCI, Alberto (1989): «Nomads of the Present. Social Movements and Individual Needs in Contemporary Society». Hutchinson Radius, Londres.
- MIDTTUN, Atle & RUCHT, Dieter (1994): «Comparing Policy Outcomes of Conflicts over Nuclear Power: Description and Explanation». Helena Flam (arg.): «States and Anti-Nuclear Movements» 383-415. Edinburgh University Press, Edinburgh.
- MEYER, David S. & TARROW, Sidney (arg.) (1998): «The Social Movement Society». Rowman & Littlefield, Lanham.
- MOTA, Fabiola & SUBIRTS, Joan (2000): «El quinto elemento: el capital social de las Comunidades Autónomas. Su impacto sobre el funcionamiento del sistema político autonómico». *Revista Española de Ciencia Política* 1(2): 123-158.

- MURGUIALDAY, Clara; RIO Amaia del, & ANITUA, Estibaliz & MAÑO, Cristina (2000): «Perspectiva de género en las ONGD vascas». Seminario Mujer y Desarrollo de Bilbao, Mugarik Gabe y Hegoa, Bilbo.
- OFFE, Claus (1988): «Partidos políticos y nuevos movimientos sociales». Editorial Sistema, Madril.
- OLSON, Mancur (1992): «La lógica de la acción colectiva: bienes públicos y la teoría de grupos». Limusa, México.
- ORNOZ, Mixel (1995): «Euskalzaleen Bilbtzarretik Euskal Konfederaziora». Bat Soziolinguistika aldizkaria 16 .
- PASTOR, Jaime (1991): «Movimientos sociales y nuevas demandas políticas: el movimiento por la paz». *Revista de Derecho Político* 34: 227-235.
- PASTOR, Jaime (1998): «La evolución de los nuevos movimientos sociales en el Estado español». Pedro Ibarra y Benjamín Tejerina (arg.): *Los movimientos sociales: Transformaciones políticas y cambio cultural*, 69-87. Trotta, Madril.
- PINDADO, Fernando (2000): «La participación ciudadana en la vida de las ciudades». Serbal, Bartzelona.
- RANDLE, Michael (1998): «Resistencia civil. La ciudadanía ante las arbitrariedades de los gobiernos». Paidós, Bartzelona.
- RASCHKE, Joachim (1994): «Sobre el concepto de movimiento social». *Zona Abierta* 69: 121-134.
- RIECHMANN, Jorge (1991): «¿Problemas con los frenos de emergencia? Movimientos ecologistas y partidos verdes en Holanda, Alemania y Francia». Revolución, Madril.
- RIECHMANN, Jorge & FERNANDEZ BUEY, Francisco (1994): «Redes que dan libertad. Introducción a los nuevos movimientos sociales». Paidós, Bartzelona.
- RODRIGUEZ VILLASANTE, Tomás (1984): «Comunidades locales: análisis, movimientos sociales y alternativas». Instituto de Estudios de Administración Local, Madril.
- RUCHT, Dieter (1992): «Studying the Effects of Social Movements: Conceptualization and Problems». ECPR Joint Meeting, Limerick, Irlanda.
- RUCHT, Dieter (2000): «El impacto de los movimientos medioambientales en Occidente». Cuadernos Bakeaz 39. Bilbo.
- SACRISTAN, Manuel (1987): «Pacifismo, ecología y política alternativa». Icaria, Bartzelona.
- SAMPEDRO, Víctor (1997): «Movimientos sociales: debates sin mordaza. Desobediencia civil y servicio militar (1970-1996)». Centro de Estudios Constitucionales, Madril.
- SANCHEZ CARRION, Jose M.^a (1987): «Un futuro para nuestro pasado». Donostia. Autoedizioa.
- SMELSER, Neil J. (1989): «Teoría del comportamiento colectivo». Fondo de Cultura Económica, México.
- SNOW, David A. & ROCHFORD, E. B. & WORDEN, Steven K. & BENFORD, Robert D. (1986): «Frame Alignment Processes, Micromobilization, and Movement Participation». *American Sociological Review* 51: 464-481.
- SZTOMPKA, Piotr (1995): «Sociología del cambio social». Alianza Editorial, Madril.

- TARROW, Sidney (1997): «El poder en movimiento: los movimientos sociales, la acción colectiva y la política». Alianza, Madrid.
- TEJERINA, B., FERNANDEZ SOBRADO, J.M. and AIERDI, X. (1995): «Sociedad civil, protesta y movimientos sociales en el País Vasco». Servicio Publicaciones del Gobierno Vasco. Gasteiz.
- TILLY, Charles (1978): «From Mobilization to Revolution». McGraw-Hill, New York.
- TOURAINÉ, Alain (ed.) (1990): «Movimientos sociales hoy». Hacer, Barcelona.
- TOURAINÉ, Alain (1981): «The Voice and the Eye: An Analysis of Social Movements». Cambridge University Press, Cambridge.
- TURNER, Ralph H. & KILLYAN, Lewis M. (1957): «Collective Behavior». Prentice-Hall, Englewood Cliffs.
- URRUTIA, Víctor (1985): «El movimiento vecinal en el área metropolitana de Bilbao». Instituto Vasco de Administración Pública, Gasteiz.
- URTEAGA, Eguzki (1998): «Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren sorrera: Baldintzak eta aktore kategoriak». *Inguruak* N.º 21. Bilbo
- VALENCIA, Ángel (1997): «Retos contemporáneos de la política (I): los movimientos sociales y el ecologismo». Rafael del Águila (arg.): «Manual de Ciencia Política», 451-475. Trotta, Madrid.
- ZALD, Mayer N. & McCARTHY, John D. (1987): «Social Movements in an Organizational Society». Transaction Books, New Brunswick, NJ.
- ZUBERO, Imanol (1996): «Movimientos sociales y alternativas de sociedad». Ediciones HOAC, Madrid.
- ZUBERO, I. & CORRETTA, J.L. & MARDONES, J.M. & TRILLA, J. (1996): «Una potencia débil. Asociaciones y Nuevos Movimientos Sociales como vías de participación para una sociedad solidaria». Fundación EDE, Bilbo.
- ZUBIAGA, Mario (1992): «Euskal Nazional Mugimenduaren (ENAM) aukera politikorako egitura (1988-1992)». *Inguruak*, 7.

Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak, 14. zk.

Gizarte mugimenduak politika «egiteko» modu berri bat ekarri dute sistema politikoetara. Betiko interes taldeekin eta alderdi politikoekin lehian, batzuetan alderdi politiko berriak edota hauteskondeetako alternatiba berriak osatuz (berdeak, feministak, zerrenda alternatiboak, ...) edo ez, beren gaiak eta agendak politikarien eta erakundeen mahai gainean lehen mailan egotea lortu dute. Euskal Herriari dagokionez, zehazki, eragin batzuk nabarmenak dira: euskal lurra nuklearizatzeko politiken porrota, politikarien eta komunikabideen agendetan genero kuestioak etengabe azaltzea, edota derrigorrezko soldadutza ezabatzea. Beste ondorio batzuk zailagoak dira hautematen: balioen eta jarrerren aldaketa, sozialki eta politikoko gaituz joateko prozesuak, ekintza kolektiboetarako modu berriak, diskurtso eta pentsaera berriak. Ildo honetatik dabil eskutartean daukazuen idazki hau.

Rafael Ajangiz 1984. urtean Pedagogia ikasketak burutu ondoren, bilbotar honek ongizate zerbitzu batean aritzearekin batera mugimendu antimilitaristan buru belarri eman zuen hainbat urte. nazioarteko ordezkari bihurtuz. 1996. urtetik EHUko Zientzia Politikoaren Saileko irakaslea da eta soldadutza desagertzean mugimendu pazifistak izan duen eraginari buruz idatzi du tesi doktora. Artikulu asko argitaratu ditu gizarte mugimenduz eta bereziki bake mugimenduz, besteak beste *Objetores, insumisos: la juventud vasca ante la mili y el ejército* (1991), *La insumisión, un singular ciclo histórico de desobediencia civil* (1998), eta *Política militar y movimientos sociales: el fin de la mili en Europa* (2001) liburuak ditu aipagai.

Iñaki Bárcena Zuzenbidean litzentziatua, 1984. urtetik EHU'n irakasle eta ikerlari moduan dihardu, Zuzenbide Publikoan hasieran eta gero Zientzia Politikako Sailean. 1990an bere tesi doktora irakurri zuen Europako desarme nuklearraren aldeko mugimenduz. Ordurako mugimendu antimilitaristan eta ekologistan murgilduta zebilenez gizarte mugimenduak beraz alde akademiko zein aktibistatik ezagutu ditu. 1995 eta 1996 urteetan Bruselako Ingurugirorako Bulego Europarren Estatu Espainarreko talde ekologisten ordezkaria izan zen eta bere idazkien artean *Nacionalismo y Ecología. Un concepto polémico* (1998) eta *Bilbo nora zoaz. Reflexiones para un Atlas Medioambiental del Bilbao Metropolitano* (2000) topa daitezke.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL



**Deustuko
Unibertsitatea**

